

K...eta
Kitto!

2019-V-17

1100 zkia.

Edertasun lehiaketak zerumugan

Etxeko aseguruak
estimaten duguna
babesten du.
Altzariak,
elektrodomestikoak,
arropa, balio handiko
gauzak... **Sartu eta
azalduko dizugu!**

**ETXE
ASEGURUA**

EUKI
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

Informazio gehiago: eukiseguros.com

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99



Gaur Leire Erañarekin egon gara eta MGEP GMHZ informatika-ko ikasle bezala bizi izandako esperientzia kontatu digu.

MGEP-en Goi mailako Heziketa zikloko Informatika teknikari kompetentziak lortzen ari den Leire Eraña DUAL ikaslearen lekukotza

Kaixo, Leire. Zergatik aukeratu zenuen Sareko Informatika Sistemen zikloa ikastea? Eta zergatik aukeratu duzun Mondragon Goi Eskola Politeknikoa?

Ziklo hau egin aurretik, Haur Hezkuntzako gradua ikasi nuen, umeak nire pasioetako bat direlako. Baina ikusita gizartearen beharretako bat informatika zela eta kontuan izanik oso arlo zabala dela, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa aukeratu nuen oso erreferentzia onak izan ditudalako.

Sareko Informatika Sistemen zikloan, ETHAZI metodologiarekin lan egin duzue; hau da, erronkak taldean lan eginez, Informatika-mantenu teknikarietako funtzio profesioaletako kompetentziak lantzea. Zein motatako erronkak egin dituzue? Zein izan da zure esperientzia?

Bai, lehenengo zein bigarren mailan erronkak taldean burutu ditugu, ikasgai bakoitzean ikasitakoa konbinatuz, ikasitakoa kasu errealekara eramateko eta landutakoa hobeto barnertatzeko. Lehenengo mailan, CAU (Erabiltzailearentzako Arreta Zentroa) bat egin behar izan genuen, planteatzen zizkiguten gertakari guztiak jaso eta ebatziz. Bigarren erronkan, asmatutako elkartearen sare sistema instalatzea eta konfiguratzea eskatu ziguten. Eta hirugarren erronkarako, asmatutako elkartearekin konektatu behar izan genuen, kontuan izanda eraikin bat Arrasaten zegoela eta bestea Cadizen, eta behar zituzten baliabide guztiak kudeatu behar izan genituen.

Bigarren mailan, berriz, ikasgai guztiak nahastuz eta hiruhilabeteko bat egin beharrean, ikasgai bakoitzaren bloke bakoitzarekin erronka bat burutu genuen; hau da, ikasgai bakoitzean gai bat amaitzen dugun bakoitzean erronka bat egin dugu, zailtasun pixka bat gehituz. Beraz, bigarren mailan erronka gehiago egin ditugu.

Honekin guztiarekin esan dezaket metodo hau oso emankorra dela, kasu errealei aurre egin behar diegulako; gauzak askoz ulergarriagoak egiten zaizkigu bere erabilgarritasuna ikusten dugulako.

Dual programan ere parte hartu duzu. Zein enpresatan zaude? Zein motatako zereginak dituzu?

Arizmendi Ikastolan nago, sistemen departamentuan. Normalean, ordenagailuak prestatu/gaurkotu, ekipamenduak itxuratu, datu baseak egin... web garapen baten ere lanean nabil.

Duala oso gomendagarria da, egiten ari zarena gustuko duzun edo ez konturatzeko era onena da.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgpe@mondragon.edu
943 71 21 91



Informaticando

KARTELERIA DIGITALA

ZURE NEGOZIOAREN IRAGARKIA. EIBAR ETA ELGOIBARREN.

TABERNETAN



ZINEMETAN



30 PANTAILA



HARATEGIETAN

OKINDEGIETAN



HARREMANETAN JARTZEKO

WWW.INFORMATICANDO.EUS

943 15 06 22



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18 /
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Alba Ortega

BANAKETA-ARDURA:
Mohammed El Ghabali

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzukizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

– EZIN GIÑAN GERATU ESKERRAK EMON BARIK –

Lerro hauen bittartez, gure esker ona adierazi nahi diegu bai Euskal Jaixa antolatzen dabene jende guztiari eta baita Klub Deportiboko Kultura sail guztiari. Domakako omenaldixa oso polita izan zan, hunkigarria eta edarra baita, eta ezin giñan holan geratu, eskerrak emon barik.

Eskerrik asko, benetan, omenaldira etorri zan jende guztiari, bai Euskal Jai dana eta baita omenaldixa be edarto baiño hobeto urten zalako.

Guretako Euskal Jaixa beti izango da berezixa, Fernando gogoratzeko.

Fernandoren famelixia

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MINGATX.- Mingotsa, mikatza. *"Hesixetako arantziak emoten dittuan aranak, benetan dira mingatxak".*

MINGEL / MINGELIN.- Pertsona kexatia, beti hileta jotzen ibiltzen dena. *"Jaten mikia, eta ostian mingela".*

astean esanak

"Gipuzkoaren bataz besteko adina 1975ean 31 urtekoa zen, hemendik gutxira 47koa izango denean. Suizidio demografikoa bizitzen ari gara, eta horrek behartzen gaitu orain dela urte batzuetako zentzuzko jaiotze-tasetera itzultzeko ahalegina egitera, nagusien zainketa baztertuta laga gabe. Zainketa hori gaur egun emakumezkoen esku dago, batez ere etorkinen esku, gaur egungo esklabotasun ereduari jarraituta. Eta jasotzen dituzten laguntzak gero eta urriagoak dira. Dirua badago, zergatik ez hor erabili?"

(DENIS ITXASO, POLITIKARIA)

"Robotak humanoideekin lotzen dira gehienetan, baina ez du zertan horrela izan. Roboten kontzeptua difuminatuta dago egun. Dronak ere robotak dira eta haiek ere izugarriko iraultza etorriko da; arauak eta legeak zehazten ari dira. Ez da gai erraza, baina airetik dron bidezko trafikoa ere badator. Etorkizunean, dronek zerbitzu ugari eskainiko diote gizakiari. Eta medikuntzako roboten laboratoriora Japonia da. Arlo sozialean kontserbadoreak badira ere, arlo teknologikoan ez zaie inporta robot batean wifi kontrola jarri eta mugikorrarekin kirofanoko robot bat kontrolatzea. Hori hemen ezinezkoa da"

(IBAI INZIARTE, INGENIARIA)

"Txarrena landaberrien agerpena izan da, postaleko irudiaren bila doazen horiena. Fenomenoa orain dela hamar bat urte sortu zen EEBB-etan. Herri txikietan bizi den jendea ez da barraskilo batean bizi: mugitu egiten da, bizi, txakur eta ahuntzak hazten ditu eta zarata ateratzen duten furgonetak gidatzen ditu. Herri txikiak hiriak bezain konplexuak dira; horregatik komeni da informatzea bertara bizitzera joan aurretik. Ez da gaurko kontua: 2009an, jabe batzuen kexei erantzunez, Sant Mori Kataluniako herrian kanpaiak jotzea debekatu zuten eta, geroago, Markinan herritarrek erabaki zuten kanpaiekin jarraitzea"

(ARTEMIO BAIGORRI, SOZIOLOGOA)

Aldundiak beriari eutsiko detsala salatu dabe Egogaingo bihargiñak



Egogain Gerontologia Zentruko bihargiñak hiru konzentrazi-ño egin zittuen astelehenian, hilliotan egitten diharduen burru-karekin eskatzen dabenaren barri jendiari emoteko asmuarekin. Bihargiñen ordezkariak azaldutakuaren arabera, *“Foru Aldundiarekin egin genduan azken negoziaziño mahaixan Aldundixak bere asmueri heltzen segitzeko asmua agertu zeskun, hau da, solairu barrixak zabaldua be, horretan bihariari jarduteko langille bakar bat gehixago ez dabela kontratauko esan zeskun atzera be. Horrekin batera, amortizatu eta desagertarazi dittuen lanpostuak ez dittuela beteko eta guk proposatzen dittugun neurri-xetatik bat bera be ez dabela ezarriko gaiñeratu eban. Bixen bittartian, bi zerbitzari edo kamareraren lanpostuak dezagertarazi dittue eta, bixak jubilatzeraz doiazela-eta, ‘kaleratze ez-traumatik-kuak’ dirala diñue gaiñera. Bittartian, baiña, zeñek egingo dau euren biharra? Lotsagarrixa!”*.

Dohaiñeko bisita gidatuak eskinduko dittue Dolmenen Ibilbidia ezagutarazteko

Dolmenen Ibilbidiaren balixo arkeologikua eta paisaia jendiaren artian ezagutzera emoteko asmuarekin, Elgoibarko, Bergarako eta Soraluze-ko Udalak, Debegesa garapen agentziarekin alkarlanian, dohaiñeko bisita gidatuen programa barrixa abiarazi dabe. Horretarako urteerik maizta eta abuztua bittartian egingo dira. Zazpi bisita gidatu antolatu dittue eta lehelengua maiztaren 26xan egingo da, euskeraz. Hortik aurrera, gaiñontzeko urteerik honako egunetan izango dira: ekaiñak 29 (euskeraz), uztaillak 7 (gaztelera-raz), uztaillak 14 (euskeraz),

uztaillak 21 (gaztelera-raz), uztaillak 28 (euskeraz) eta abuztuak 10 (gaztelera-raz). Ibilbide gidatuak 9 kilometroko luzeeria eta hiru ordu eta erdiko iraupena daka (Karakaten hasi eta Irukurutzetaraiño juan-etorrixa) eta, esaten dabenez, *“errez egitteko moduko ibilbidia da, aldapa gitxikua eta famelixan egitteko aproposa”*. Bisita gidatuak Karakateko aparkalekutik urtengo dira, Soraluzen, goizeko 10:00etan eta, ibilbidia amaitzeko, parte hartzen dabenak gaztaia eta sagardua dastatzeko aukeria eukiko dabe. Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon bihar-ko



da, 657 79 46 77 telefonora deittuta edo info@begi-bis-tan.com helbidera idatzita.

Horrekin batera, bertan dagaizen hainbat trikuharri eta tumulu ikertzeko indusketa lanak hasiko dittu ekaiñan Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologua). Izena emoteko epia zabalik egongo da maiztaren 30era arte.

hartzera animatzen diranak Aranzadiarekin harremanetan ipiñi bihar-ko dira, izena emoteko. Horretarako mezua idatzi leike jtapia@aranzadi.eus helbidera (Jesus Tapia, Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologua). Izena emoteko epia zabalik egongo da maiztaren 30era arte.



Hainbat tokittan emon leike Minbizixaren Kontrako Lasterketarako izena

Ekaiñaren 22xan egingo dan Minbizixaren kontrako Eibarko I. Lasterketan parte hartu nahi dabenak, aurretik izena emon bihar-ko dabe eta horretarako aukeria egongo da ekaiñaren 15era arte. Izen-emotia egitteko honako tokixetara jo leike: AECC-Eibarko Minbizixaren Aurkako Eibarko Elkartean (Ardantza kalia), As Burgas Galiziako Etxian, Untzagako jubilaue txian, Amañako kioskuan, Urkin (Rioja tabernan), San Kristobalen (Xania tabernan) eta Legarren (Bolintxon). Hortik kanpora, domekan, Eibar-Bartzelona partiduaren aurretik be egongo da izena emateko aukeria, Ipuruan. Izena emoten dabenak 10 euro ordaindu bihar-ko dittu eta trukian ekimerako egin daben kamisetia eta dortsala jasoko dittu.





Merkatu kalia automobilendako itxi dabe

Maiatzaren 8tik trafikurendako itxitta dago Coliseo antzoki paretik Errebal kaleraino doian Merkatu kalia, Errebalgo biharrak hasi dittuela-eta. Lanak amaittu arte kalia moztuta segiduko dau eta, errepidia trafikuari atzera be zabaldu arte, Blas Etxebarria kaleko garajetara Pagaegi kaletik sartu eta urten biharko dabe automobilak.

Santa Kurutz jaixetako sarixa Ormaiztegira jua da

Aurreko asteko aldizkarixan emon genduan argittara Santa Kurutzeko jai batzordiak saldutako errifen zozketako zenbaki sariduna 554 izan zala eta honezkero

emon detse sarixa irabazliari. Jai batzordekuak esan dabenez, zenbaki sariduna Euskal Herriko Itzulian saldu zan eta, horregaittik, aurtengo jaixetako sarixa, erretatuan ikusten dozun karretilla ederra, Ormaiztegira jua da. Zorionak!



autuan

1969-XAN ETA 1954-AN JAIXOTAKUEN JAIXAK

Aurten 50 urte beteko dittuenak (1969xan jaixotakuak) euren jaixa preparatzen hasi dira. Urriaren 26xan ospatuko dabe eta, programia finkatu barik egon arren, antolatzailliak diñuenez, "urteurren berezixa danez, hobe egun horretarako beste planik ez egittia". Facebooken "Eibar 1969" taldia sortu dabe eta 1969eibar@gmail.com helbide elektronikua be ipiñi dabe martxan, informaziñua zabaltzen juateko. Bestalde, 1954an jaixotakuak urriaren 5ian alkartuko dira, 13:00etan Untzagan. Zapixak banatu eta talde argazkixa egin eta gero, luntxa eukiko dabe Ongi Etorri tabernan, bazkarixa 14:30xetan Unzaga Plaza hotelian; DJa bazkalostia girotzeko, tragua Ongi Etorrixan (19:30) eta 21:30xetan Arkupen alkartuko dira, zeozer jan eta edateko. Parte hartzeko 85 euro sartu bihar dira Laboral Kutxako ES 9230350023900231158365 kontu zenbakixan, izen-abizenak ziheztuta.

Amañako Jaixetako I. ARTISAU AZOKA

egingo dugu *uztailaren 6an*

parte hartu nahi baduzu idatzi helbide honetara maiatzaren 30erako:

auzokojaixak@hotmail.com

www.etakitto.eus

WEB

ALBISTEAK
AGENDA
ARGAZKI
BILDUMAK
BIDEOAK



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
funeuskadi



Balkoiak apaintzeko lehiaketia antolatu dabe

Udaleko Ingurumen Saillak eta Debegesak “Balkoien eta leihuen edertze lehiaketia” egingo dabe. Eibarren ez eze, Deban, Elgoibarren eta Ermuan be egitten da balkoiak eta bentanak apaintzeko lehiaketia eta irabazliendako hainbat sari banatuko di-



ttue antolatzaillak: eskualde maillako sarixa irabazten dabenari 250 euroko bonua emongo detse eta, horrekin batera, herri maillako sarixak be banatuko dittue (200 euroko bonua lehelenguari eta 150 euroko bonua bigarrenari). Bonuak Eibar Merkataritza Gune Irekiko kide diran saltokixetan erosketak pagatzeko erabili ahal izango dira. Jendia lehiaketan parte hartzera animatzeko asmuarekin, herritarren artian lorak banatuko dittue duan maiatzaren 22xan, 10:00etatik 13:00era bittartian Untzaga plazan. Azaldu dabenez, etxe baktzeko lora bakarria banatuko da, danak amaittu arte eta, landaria jasotzeko, derrigorrezkua izango da etxietara banatu daben orrixa beteta eruatia. Lehiaketan parte hartu nahi dabenak astelehenetik aurrera emon ahal izango dau izena Pegoran, Furgobaratzen edo ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi-tta (ekaiñaren 14ra arte). Informaziño gehixago jasotzeko 943 708408 telefonora deittu (09:00etatik 14:00xetara) edo ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi leike edo, bestela, www.eibar.eus helbidian begiratu.

BPTD enpresa-alkartia eratu dabe

Aurreko asteko eguaztenian eratu zan BPTD (Basque Precision Technology District) enpresa-alkartia, Armerixa Eskolak hartu eban ekitaldixan. Alkartia Eibar eta inguruko hainbat enpresaren babesarekin eta beste instituziño batzuren laguntasunarekin eratu dabe eta sorreran 27 enpresa honek hartu dabe parte: AGME, APEL, Codesyntax, Danobat Group, Debegesa, Delteco, Eitek Informatica, Engranajes Ureta, Etxe-tar, Electricidad Gorosabel, Grip On Tools, Grupo Unceta, Gurelan, HRE Hydraulic, Jaz Zubiaurre, Grupo Kirol, Manufacturas Resort, Microdeco, REC Accesorios, Somabe, Talka Media, Urkotronik, Electricidad Urki, Mecanicas de Precision Bikain, Industrias Mail, Tornilleria Oruesagasti eta Beltran Ascensores y Montacargas. Horrekin batera, Eibarko Udala, Ermuko Udala, Bic Gipuzkoa,



IK4-Tekniker, MTA, Armerixa Eskolia, Armerixa Eskolako Alkartia eta beste kolaboratzaillak batzuren laguntasuna be jaso dau. Horrek guztiak alkarteko partaide izatera pasauko dira behin alkartia sortzen dabenian.

Gure herrixa zein ingurukuak berrindustrializatzeko asmuarekin eratu barri daben alkartia martxan ipintzeko arduria eukiko daben zuzendaritza batzordia be aurreko asteko ekitaldixan osatu eben: lehendaka-

rixia Eduardo Zubiaurre (Jaz Zubiaurre) izango da, idazkari-diruzaiña Carlos Abad (Urkotronik) eta batzordekidiak Xabier Alzaga (Danobat Group), Manu Egaña (Grupo Kirol), Borja Emparan (Engranajes Ureta), Miguel Angel Arenas (Manufacturas Resort) eta Juan Angel Balbas (Debegesa). Abiatu barri daben alkartiarengan inguruan informaziño gehixago jasotzeko info@bptd.eus helbidera idatzi leike edo, bestela, www.bptd.eus helbidian begiratu.

Toribio Etxebarria Sarixetan parte hartzeko epia zabaldu dabe

Toribio Etxebarria Sarixen 29. ediziñua izango da aurtengua eta ekaiñaren 11ra arte egongo da zabalik izena emoteko epia. Ekimen ekintzaillak sustatu eta ekimenen jardueria hasterakuan laguntasuna eskintzeko asmua dake sari honek eta bi kategorixa nagusi bereizten dira: 'Enpresa asmua' eta 'Enpresa barrixak'. Atal bakotzeko irabazliak 10.500 euroko sarixa jasoko dabe, eta proiektu irabazle edo finalistaren bat Eibarrekin loturia eukiz gero 'Eibarko Udalaren Sari Berezixa' eta 10.500 euro jasoko dittu. Horrekin batera, irabazliak laguntza-programak, prestakuntza eta aholkularitza eskuratzeko aukeria be eukiko dabe. Bestalde, nazioartekotze-prozesuan laguntasuna bihar daben ekimenei zuzendutako proiektuak 'Nazioartekotza babes' sarixak jasotzeko aukeria eukiko dabe. Lehiaketa hau sortu zanetik 600 enpresa-



idea eta proiektu baiño gehixago aztertu dittue antolatzaillak. Aurreko astian sarixak aurkezteko ekitaldixan esandakuaren arabera, aurreko ediziñuetan saritutako proiektuak 38 millioi euro inguruko inbersiñua eta 800 bat lanposturen sorreria eragin dabe, horretako gehixenak (%80 bat) goi-maillako kualifikaziñokuak.

Eibarko Topaketa Feministak egingo dira maiatzaren 25ian

Eibarren emakume feminista asko daguazela eta, "geure artian saretzeko, aliantzak sortzeko, konspiratzeko, hausnartzeko, alkarrengandik ikasteko... eta, zergaittik ez, ondo pasatzeko", Topaketa Feministak antolatu dittue maiatzaren 25erako. Horren harira, goizetik hasita egun osua, gaberaiño beteko daben egitaraua preparau dabe. Antolatzaillak aurreratu dabenez, "goizeko ekitaldixekin hasteko, militantzia feministan aritu diran (eta oindiok be horretan diharduen) belaunaldi ezberdiñetako emakumeekin mahai-ingurua egingo dogu, bakotxaren esperientziak partekatzeke. Jarraixan, Arragueta kalian mural bat margotuko dogu, autodefentsa feminista aldarrikatzeko. Hori amaittu eta gero, danak alkarrekin bazkalduko dogu eta, ondoren, bazkaloste animatuan gozatzeko tartia eukiko dogu. Arratsaldian, tabernarik taberna ibilliko gara danak al-



Pentsiñodunen eskaereri erantzuteko eskatuko detse politikueri

Zapatuan eskualde maillako manifestaziñua egin zan Eibarren, Debabarreneko Pentsiodunen Plataformak deittuta. Pentsiño duiñak eta publikuak eskatzeko mobilizaziñua Untzagan amaittu zan eta, jubilaunen ordezkariak han esandakuaren arabera, astelehenetako kontzentraziñuak egitten segiduko daben arren, eskatzen dabena lortzeko asmua-rekin pauso barrixak emongo dittue. Ildo horretan, eta alderdi politikuek hauteskunde kanpaiñian bete-betian sartuta daguazela aprobetxauta, astelehen honetan Untzagan karpa bat ipiñiko dabe, pentsiodunen eskaera eta bestelakuekin loturia daken kontuak politikueri galdetzeko asmuarekin. Hauteskundieta aurkezten diran alderdi guztiak gonbidatu dittue parte hartzera eta bakotxak aukeria eukiko dau jubilauek egin de-tsazen sei galderak erantzun eta bere proposamenak aurkezteke. Publikua izango dan ekitaldixa 12:00xetan hasiko da.



karrekin, kalia feminismuarekin bus-tiz eta girotuz. Eta, eguna biribiltzeko, gaztetxian festa txiki bat egingo dogu, akelarre eta guzti". Antolatzaillien berbetan, "guretako bakarrik izango dan eguna ospatzeko premiñia genkagula pentsatzen dogu. Martxuaren 8xa haundixa izan bazan, hau kolosala izango da!". Horregaittik, andra guztiak euren bat egittera animau nahi dittue.

ARRATE URZURIAGA BOLLAR

(2019ko maiatzaren 14an hil zen, 59 urterekin)



Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztoi.



Johan Marbelek lan egiten duen okindegian egon ginen berarekin.



Areparik ezean, ogia

Johan Cruyff 70. hamarkadako foball izar handiena zen eta Kolonbian jarraitzaile sutsu bat zuen. Jarraitzaile honek alaba izan zuen 1977an eta Johan Marbel izena jarri zion, gure protagonista hain zuzen ere. *"Nire ama pixka bat zoratuta zegoen, baina tira, nola esan ezetz emakume kolonbiar bati"*, dio Johan Marbelek. Gurasoak kolonbiarrak baditu ere, Venezuelen jaio zen Marbel (*"horrela deitzen didate"*). Beraz, foball izar baten izenarekin hazi zen beisbola nagusi den herrialdean.

'Zintzotasunaren hiria'

Marbel San Kristobalen jaio zen, Venezuelako Tachira estatuan, Kolonbiako mugatik hurbil. *"Eibarrekin alderatuta handia da, baina Eibar bezain menditsua. Andeen eskualdean dago eta oso klima ona du. Egunez bero samar egoten da, baina gauean freskatu egiten du"*. 'Zintzotasunaren hiria' deitzen diote, *"adeitsuak eta atseginak garela diotelako"*. Abeltzaintza da hiriko ekonomiaren eragilea eta Venezuelako pobrezia indize baxuenetakoa du. *"San Kristobalگو unibertsitate publikoak maila handia du eta oso ondo prestatutako graduatuak irteten dira handik"*.

Amama Chavezen aurretik

Marbelek haurtzaro *"oso atsegina"* izan zuen San Kristobalen. *"Kaniketan (Vene-*

zuelan 'metra' esaten zaie) eta ezkutaketetan jolasten genuen, eta foballean ibiltzen ginen, beti kalean". Amamak oiloak, ahateak, galeperrak... hazten zituen etxearen atzealdean lehenik eta gero, apartamentu-erakin batera bizitzera joan zenean, balkoian. *"Chavezek esan zuen oilategi bertikalak egin behar zirela apartamentu eraikinetan. Ba nire amama aurreratu egin zitzaion!"*. Oiloekin trauma du Marbelek. *"Amamak hainbat txita oparitu zizkigun lau ilobari eta bakoitzak berea zaintzen zuen. Hazi zirenean, ordea, amamak lapikoan sartu zituen jateko. Pentsa zein gogorra den zuk hezitako oiloa jatea!"*.

Ama Caracasen

Batxilergoa amaitu zuenean, amarekin oso harreman ona ez zuenez, Caracasera joatea erabaki zuen, Venezuelako hiriburura. *"Ikasten jarraitzea eta lan egitea zen nire asmoa, eta han aukera gehiago izango nituela pentsatu nuen"*. Gurasoak bannaduta zeuden eta aita Caracasen bizi zen. *"Laguntza eskatu nion, baina ez nin-*

duen etxean hartu. Bizkarra eman zidan". Aita arotza zen eta bere tailerrean toki bat utzi zion denbora batez, gutxienez. *"Gizonezko asko zegoen aroztégian, asko nire adinekoak, 18 urte nituen eta sasoi hartan ez nekien maitasuna zer zen. Sexua maitasuna zela uste nuen. Hortik dator nire semea"*. 18 urterekin ama izan zen eta bakarrik egin zuen aurrera. *"Amarekin haserre negoen, aitag bizkarra eman zidan eta ez nuen maite nire semearen aita. Lur jota negoen eta nire semeari lotu nintzaion aurrera egiteko"*.

Itzulera gabeko bidaia

Urte batzuk geroago alaba jaio zen eta hirurak San Kristobalera joan ziren bizitzera. Marbelek bi neba gazte ditu eta eurretako bat Euskal Herrian bizi zen (orain hirurak). *"Hemen lan egiteko aukera nuela esan zidan"*. Bere aholkuari onartu eta seme-alabekin etorri zen. *"Gogor egin dut lan iritsi nintzen momentutik, baina oso ondo hartu naute eta gaur egun oso pozik nago okindegian"*. Seme-alabek, ordea, jazarpen egoerak bizi izan dituztela dio, *"azal koloreagatik, ahoskeragatik..."*. Marbel euskaldun batekin ezkondu zen eta familian momentu txarrak pasa badituzte ere, hemen du etxea. *"Sekula ez itzultzeko asmoarekin joan nintzen Venezuelatik. Bisitan joan naiz behin, baina gauzak asko aldatu beharko lirateke bizitzera bueltatzeko"*.

"Perro que ladra no muerde"

"Zaunka egiten duen zakurrak ez du hozka egiten"



Ogasunarekin kontuak egiteko sasoia da. Zenbakien hizkuntza unibertsala da, baina administrazioarekin harremana izateko orduan norberak erabakitzen du zein hizkuntza erabili. Eibartarrek errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko asmoz, Udaleko Euskera Batzordeak 'Eibarren 1.500 baietz!' kanpaina jarri du martxan. Errenta aitortpena egitea erronka da; euskeraz egitea, herritarren aukera.



Markatu euskeraren laukia

Arragueta kalean dago Gipuzkoako Ogasunaren egoitza. Hilabete hauetan aldez aurretik zita egin duen jendez beteta egon ohi da goiz osoan zehar eta kalkulagailuak sutan daude. Zenbakiak gora eta behera, Elena Etxarri errenta kanpainako arduradunak administrariaren zalantzak argitzen ditu herritarren errenta aitortpena zuzen egiteko asmoz. *“Ni ez naiz herritarrekin zuzenean egoten, baina nire tokitik entzun dezaket jendeak zein hizkuntza erabiltzen duen gurekin harremana izateko orduan eta urte guztiko joera mantentzen dela esango nuke”,* erantzun zigun euskeraren erabilera hazi egin ote den galdetzean. *“Bulegoaren sarreran errenta aitortpena euskaraz egiteko azalpenak jasotzen dituzten panfletoak ditugu eta mahai bakoitzean kartelak eta pegatinak ditugu jendeak errenta euskaraz egitera animatzeko”.*

lazko errenta kanpainen 1.209 eibartarrek aukeratu zuten euskera Foru Ogasunarekin harremanak izateko hizkuntza moduan, hau da, herritarren %10 inguru (2016an 1.217 izan ziren, 2015ean 1.081, 2014an 1.028 eta 2013an 1.000). Aurten go helburua 1.500 eibartarrek errenta aitortpena euskaraz egin dezaten lortzea da.

Hizkuntza teknikoarentzat hiztegia

Errenta aitortpena egiteko orduan herritarrek euskeraz edo gaztelaraz egitea aukeratu dezakete, hau da, dokumentu ofizialak zein hizkuntzatan bete. *“Batzuetan gertatzen da jendeak dokumentu hauek nahiago dituela gaztelaraz egin, hizkuntza teknikoa erabiltzen den gaztelaraz hobeto moldatzen direlako. Gero, ordea, gurekin harremana euskaraz izaten dute bulegoan kasu batzuetan”.* Errenta aitortpena gaztelaraz egiteko arrazoia hizkuntza teknikoa bada, Arraguetako bulegoan hiztegi bat dago eskura berba tekniko horien azalpenarekin. *“Pertsona nagusiek, orokorrean, gaztelara erabili izan dute kontuak egiteko eta, adibidez, gerta daiteke kenkaria berba zer den ez jakitea. Horretarako jarri dugu hiztegia euren eskura”.* Bere ustez gazteek nagusiek baino gehiago aukeratzen dute euskera errenta egiteko orduan, ohituago daudelako kontuak euskaraz egiten.



Foru Ogasunaren bulegoan gertatzen dena *“herriaren isla”* dela uste du Etxarrik. *“Errenta kanpainen ez dugu nabaritzen hizkuntza ohituretan aldaketarik egon denik urte guztian zehar eskaintzen dugun arretarekin alderatuta. Antzekoa da”.* Aipatzekoa da, bestetik, Arraguetako bulegoak eskualde osoko jendea hartzen duela.

Hiru aukera

Errenta aitortpena egiteko hiru modu daude eta guztiak egin daitezke euskaraz. Autolikidazio proposamena jasoz gero, onartzerakoan euskaraz egin nahi dela esan eta aurrerantzean Ogasunak agiriak euskaraz bidaliko ditu; modu mekanizatu eginez gero, hitzordua aukeratzekoan Ogasunarekin harremana euskaraz eduki nahi dela adierazi daiteke; eta internet bidez egiten bada, errenta programaren euskerazko bertsioa jaitxi daiteke eta hobetsitako hizkuntza atalean euskera aukeratu. Bestetik, aitortpena aholkularitza bitartez eginez gero, aitortpena euskaraz egin nahi dela adieraztea besterik ez dago.

Aitortpenak aurkezteko epea uztailearen 1era arte egongo da zabalik. Edozelan ere, hitzordua eskatzeko zein zalantzak argitze-ko 902 100 040 telefonora deitu daiteke.

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa



bista eder
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hertz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

VITALDENT
Konpromisoa

San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika klinika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Fisioterapeutak



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendiá@hotmail.com

Ginekologia



GINECOLOGÍA
EIBAR

Dra. Laura Martínez
Dr. Alejandro Recas

Tel: 659 56 13 65
San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

Degluzio atipikoa	Arreta arazoak
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba
logopedia

AIDA CORTA ANTÓN

SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 2004)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikua

• Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746




PODOLOGOA

Maidier Lopez Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centreamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. esk.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUZ
Tel. 943 831 618



Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es

Itziar Moreno
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947

GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK

943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORREETAN

centro médico eibar



Psikoterapia

R.P.S. 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. esk. (Bilbo)
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com



Bihar ospatuko da Museoen Nazioarteko Eguna, munduko museoek elkartaren eskutik. Urtero maiatzaren 18an ospatzen den Museoen Nazioarteko Egunak "Museoak kultura ardatz gisa: tradizioaren etorkizuna" goiburuari jarraituko dio aurten eta museoek beraien komunitateetako eragile gisa jokatzeko dituzten eginkizun berrietan ipiniko du arreta. Izan ere, museoek gizartearen duten eragina aldatzen ari dela diote arlo horretan dihardutenek eta interaktiboagoak, malguak, moldaerazak eta mugikorrak izateko asmoz, etenbarik berrasmatzen ari direla. Museoak plataforma gisa funtzionatzeko duten ardatz kulturalak bihurtu dira, sormena ezagutzarekin nahasteko guneak bilakatu dira eta, gaur egungo museoetan bisitariak elkarrekin sortu, partekatu eta elkarri eragiteko aukera daukate.

Mundu osoan zehar dauden museoetan bezala, biharko egunaren harira hainbat jarduerak antolatuko dituzte Eibarko Armagintzaren Museoa ere eta, antolatzaileek azaldukoaren arabera, Eibarko armagintzaren eta haren protagonisten inguruko jarduerak izango dira: "Formatu ezberdinen bidez, erronkajoko, dokumental labor eta errealtate birtualaz baliatuta, bisitariak armagintzaren protagonistak, eskopeta fina lantzen zuten artisauek ezagutuko dituzte eta haien munduan murgiltzeko aukera izango du".



Katalogoaren aurkezpena egin zuten aurreko astean Patxi Lejardi zinegotziak eta marrazkiak egin dituen Martin Azpilikuetak.

Tradiziotik etorkizunera begiratzen dioten Museoak

Museoen Egunaren inguruko jarduerak aurreko astean hasi zituzten, ekainaren 2ra arte Museoa ikusteko moduan egongo den "Eibarko industria-sarearen berreraikuntza 1938-1942" erakusketa-aren inguruko katalogoaren aurkezpenarekin. Esandakoaren arabera, "aldi baterako erakusketa martxan dagoela aprobe txatuz, horri buruzko katalogo txiki bat prestatu dugu. Testuak Mikel Aparicio Azpilikueta-arenak dira eta marrazkiak, berriz, Martin Azpilikueta Iparragirrek egin ditu. Nahi duenak katalogoa doan eskuratu dezake Museoa bertan". Egunotan bisitatu daitekeen erakusketa bezala, katalogoak 1938 eta 1942 urteen inguruan egin ziren eraikin industrial esanguratsuenak biltzen ditu.

Ikus-entzunezkoa eta jokoa

Atzo, berriz, bigarren aurkezpen bat hartu zuten Armagintzaren Museoak: "Maisu

armaginak, urdinez jantzitako artisauek" izenburuko ikus-entzunezkoarekin batera, izen bereko jokoa erakutsi zituzten jende-aurrean. Azaldu zutenenez, "jokoa sakeleko telefonoan aplikazio bat deskargatuta erabili daiteke eta, besteak beste, armagintza tailer eta saiakuntza-banku baten errealtate birtualeko ikus-entzunezkoak eskaintzen dizkie erabiltzaileei". Eta errealtate birtualeko kontuekin jarraituta, biharko tailerra antolatu dute: 17:30ean hasiko da eta parte hartzen dutenek errealtate birtualerako betaurrekoak egingo dituzte.

Museorako sarrera doan

Eta egitaraua biribiltzeko, gaur, bihar eta etzi museoan sartzea doakoa izango da, ohiko ordutegian (gaur eta bihar 16:00etatik 20:00etara eta domekan 10:00etatik 13:00era). Eta, horrez gain, bihar arratsaldean doako bisita gidatuak egingo dituzte, Museoan urte osoan ikus daitekeen era-

kusketa ezagutu nahi dutenentzat (17:00etan euskeraz eta 18:30ean gazteleraz). Bisita gidatuetan parte hartzeko, bestalde, derrigorrez eman beharko da izena aurretik, 943 708446 telefonora deituta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita.





Eibartarrak Naturarekin lotu nahi dituen MIRABASO proiektua aurkeztu dute

Herritarrak naturarekin lotzea helburu duen Mirabaso proiektua aurkeztu zuten aurreko astean Irabazi alderdi politikoak eta Besaia enpresak. Portaleko areto nagusiak hartu zuen ekitaldian hilabeteetako elkarlanaren emaitza den Mirabaso baso-lorategiaren nondik norakoak azaldu zituzten. Maria Jesus Agirre zinegotziaren berbetan, proiektuak *“Equo Berdeak Eibar alderdi politikoaren ametsa, eibartarrei Eibartik irten barik naturaz gozatzeko aukera eskaintzea”* gauzatzeko bidea zabalduko luke.

Aurkezpenean esandakoaren arabera, landu duten proiektuan Mirabaso non kokatu ere jasota dago: Milaflores auzoan, Udalari eskaini zitzaion lursail batean kokatuko lukete, buruan duten asmoa gauzatzeko primerako tokia delakoan: *“Hegoaldera begira dago, 20 urteko basoa da, herriaren erdigunetik oinez erreza ailegatu zaitezke eta herriko ibiltarien ohiko bide askok egiten dute bat puntu horretan”*, diote proiektuaren egileek.

Irabazi-Ganemos alderdiko bozeramailearen berbetan, *“Mirabaso proiektuaren abiapuntua hainbat kasualiteri zor zaio. Lehenik eta behin, toki estrategikoan dagoen lursaila Udalari ematea gertatu zen. Horri, herritar askok eskatu diguten ortuetarako tokiren bat prestatzeko gure asmo sendoa gehitu behar zaio. Beraz, aipatutako bi horien eraginez, Besaiako biologoa den Keko Alonsorekin kontaktuan ipintzerara animatu ginen, gure buruan zegoen proiektuaren inguruan zer pentsatzen*

zuen galdetu eta gauzatzeko aukerarik ikusten zuen ala ez esateko”.

Herritarrek eskatzen zituzten baratzetarako toki egokia izango zela pentsatu arren, hainbat arazo aurkitu zituzten biologoak: *“Al-dapa-piko ugari izatez gain, basoaren birsorkuntza oso garatuta zegoela ikusi zuen adituak eta, horregatik, proiektua han garatzeko ideia burutik kentzeko esan zigun zuzenean. Hala ere, lursaila baratzak egiteko desegokia izan arren, beste proiektu bat garatzeko oso aproposa zela esan zigun, Mirabaso baso-lorategia deitu dugun proiektua garatzeko animoak emanda”*.

Proiektuan elkarlanean jardun duen Keko Alonsoren berbetan, *“baso-lorategi moduko bat irudikatu dugu. Asmoa, Barzelonako Güell parkearekin gertatzen den moduan, eguneroko zaratak eta estresa atzean lagatzera jendea animatuko duen espazioa sortzea litzateke, edade guztietako jendeak gune natural batean orotari-ko jarduerak egiteko aukera izateko”*.



Aurkezpenean esan zuten, *“Mirabaso errealitate bihurtzeko dinamika bat sortu dugu, herritarrak eta Udaleko gainontzeko taldeak proiektura gerturatzeko asmoz. Horrela errezagoa izango baita eibartar guztientzat benetan mesedegarria izango den proiektua gauzatzeko lanean hastea”*. Euren ilusioa beste guztiei *“kutsatzeko”* esperantzarekin, proiektuaren inguruko bideoa prestatu dute. Proiektuari buruzko azalpen gehiago nahi izanez gero, edo bideoa ikusteko, besaia.com helbidera jo dezakezue.

Alba Ortega (Miss Grand Eibar)

“Zu zeu izatea da garrantzitsuena miss lehiaketetan”

Argazkietatik jauzi egin eta Miss Grand Euskadi lehiaketa hartu zuen parte otsailean Alba Ortegak. 18 urteko eibartarrarentzat lehen aldia zen horrelako saio batean, baina oso pozik amaitu zuen. Orain ikasturte amaierako azterketak eta selektibitatea buru-belarri prestatzen dihardu, baina uztailen Burgos ordezkatu du Kantabrian egingo den Miss Grand España txapelketan.

- Zer moduz Miss Grand Euskadi lehiaketa?

Parte hartu baino lehen beste modu batean ikusten nituen horrelako txapelketak. Pentsatzen nuen epaileak gehiago fijatzen zirela fisikoan pertsona benetan ezagutzea baino, baina osotasuna begiratzen dute. Hau da, nortasuna edukitzea, norberaren baloreak, besteenganako errespetua, eta abar. Epaileek ez dute azken emanaldia bakarrik kontuan hartzen. Aurretik beste saio bat eduki genuen, elkarrizketa bat egin ziguten, diskurtso bat eman genuen eta azken emanaldiaren aurreko asteburuetan dantzak entseiatzen ibili ginen.

- Aho-zapore onarekin amaitu zenuen?

Bai, oso pozik. Parte-hartzaile gazteenetakoa nintzen eta niretzat erronka izan zen jendaurrean agertzea. Mister Grand Euskadi saioan egon berri naiz eta mutilekin enpatia asko sentitu nuen. Nire kasuan, publikoan hainbeste jende ikusi nuenean diskurtsoa hastea kostatu zitzaidan, baina



Alba Ortegak Eibar ordezkatu zuen Miss Grand Euskadin.

lehen berba esan eta egindakoarekin harro amaitu nuen.

- Nola animatu zinen lehiaketan parte hartzera?

Moda munduan zentratzea gustatuko litzaidake, baina gai honen inguruan gauza asko ez nekienez, paso egiten nuen pixka bat. Argazkiak ateratzea gustatzen zitzaidan, baina erropa markaren bat babesteaz gain ez nuen ezer gehiago egin. Lagun batek ekitaldi honen berri eman zidan eta castinga eginda bazegoen ere, argazkiak bidali nituen eta zortea izan nuen. Hurrengo egunean deitu zidaten, elkarrizketa egin eta aukeratu egin ninduten. Beste parte-hartzaileek pare bat aste zeramaten lanean eta uste dut horrek eragina izan zuela azken emaitzan.

- Zer behar da missa izateko?

Zu zeu izatea da garrantzitsuena. Uste dut batzuk ez zutela benetako nortasuna erakutsi txapelketan, baina pentsatzen dut horrelako lehiaketetan zure benetako irudia eskaini behar duzula. Hau da, zure baloreak igortzea, besteak errespetatzea eta besteen lepotik barre ez egitea. Izan ere,

barretxoak eta soberan zeuden iruzkin batzuk ikusi nituen.

- Modaren munduan jarraitzeko gogoa piztu dizu esperientzia honek?

Bai, hainbat aukera sortu zaizkit esperientzia honen harira eta Miss Grand Españan parte hartzeko aukeratu naute. Miss Grand Euskadin lehen hamarren artean amaitu nuen eta ez nuen uste Espainiako txapelketarako hartuko nindutela, baina zuzendariei nire jarrera gustatu zitzaie eta estatuko hainbat tokitan horrelako txapelketarik egiten ez denez, Burgos ordezkatuko dut.

- Modaren munduan maila profesionalen aritzea pentsatu duzu?

Ikasketak ez ditut albo batera utziko, baina ez neukan argi zer karrera ikasi, eta Miss Grand Españan sartzean hegazkineko laguntzaile izateko beka bat eman didatenez, onartu egin dut eta irailean hasiko dut. Ez dut urtea galduko, ikastaro horrez gain autoko karneta, EGA, First eta etorkizunean baliagarriak izan daitezkeen gauzak lortzen saiatuko naiz. Geroago hasiko naiz karrera ikasten.

La Salleren 300 urteak Untzagan dantzan ospatu zituzten

EIBARKO LA SALLEKO KIDEEK EKITALDI BEREZIA EGIN ZUTEN MARTITZENEAN UNTZAGAN, 1719-KO APIRILAREN 7-AN euren fundatzailea den Sallerko Joan Bataiatzailea hil zela 300 urte bete zirela gogoratzeko. Goizeko 11:30-ean Untzaga plazan elkartu ziren Iasiko eta Azitaingo ikastetxeetako kide guztiak eta, denek elkarrekin, egunerako bereziki prestatu zuten dantza egin zuten, "One heart, one commitment, one life" izeneko kantuaren erritmora. Ekitaldia agurtu baino lehen, La Salleko sortzailearen balio eta ametsak gogora ekartzeko manifestua irakurri zuten ikasleek.

Bestalde, aurreko zapatuan Ikertzaile Gazteen Euskal Herriko zientzia-azoka egin zen Bilboko Plaza Berrian eta La Salleko 1. Batxilergoko ikasleak han egon zirela azaldu digute ikastetxeko arduradunek: "Azokan 90 proiektu zientifiko aurkeztu ziren eta horien artean bi gure ikastetxeko ikasleek izan ziren. Esperientzia polita eta aberasgarria izan zen gazteentzat".



Barixakuero biltzen hasi dira gazteak San Juanak prestatzeko



San Juan jaiak gero eta gertuago daude eta, horregatik, horiek ospatzeko egitaraua prestatzeko beharrez hasi dira Jaixak Herrixak Herrixandako taldekoak eta barixakuero 19:00etan Txaltxa Zelaian elkartuko direla aditzera eman nahi diote jendeari, eurekin bat egin eta laguntzera animatzeko asmoz: "Laguntza barik San Juanak aurrera ateratzerik ez dago, horregatik barixakuero Txaltxa Zelaian (eguraldi txarra eginez gero, Arrate Kultur Elkartean, 1. solairuan) egingo ditugun bileterara etortzera animatu nahi dugu jende guztia. Denon artean Eibarren jai herrikoi, feminista, euskaldun eta parte-hartzaileak antolatzen jarraituko dugu, animatu eta parte hartu!".

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

*nagore fernandez*

Hauteskunde kanpainarekin batera, azkenaldian ikusgai ditugun proiektu zoragarri horietako asko haizeak eramango dituen beldur naiz

Hauteskun3Dak

Aurrekoa amaitu zela konturatzeko asitirik gabe, bete-betean murgilduta gaudere berriz hauteskunde kanpainan, urtaririlaren 1ak baino asmo on gehiago pila-tzen dituen garai honetan.

Argi gera dadila jendearen bizi kalitatea hobetu dezakeen edozein ideia dela ongietorria, noski. Baina ni apur bat mozkortuta nago hainbeste render eta 3D irudi ikusita: igogailuak, geltokiak, pasealekuak, aparkalekuak, eraikin kulturalak, kanposantua, parke itzela Guardia Zibilaren kuartelean, bidegorri famatua...! Eta bitartean

Errebal berriz martxan dela eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra noizbait iritsiko dela sinetsi behar. Nahi nuke, benetan. Baina bat-batean erretzeari utzi, dieta egiten hasi eta gimnasiora egunero joatea zaila den moduan, azkenaldian ikusgai ditugun proiektu zoragarri horietako asko ere haizeak eramango dituen beldur naiz.

Eta hausnarpenean bat, gainera: gu ez gara irudi digital perfektu batean bizi. Gure kaleetan, irudi horietan ez bezala, pobrezia ikus daiteke, zikinkeria zaborrontzietatik kanpo eta pintadak nonahi. Biztanleria ez

da modelo irrifartsuz soilik osatzen eta espaloi gainean itzaletan edo parke zabal eguzkitsuan ez dira landareak era berean hazten... Nolabait esatearren, Eibar ez da SIMS bideojokoko partida bat.

Beraz bai, zilegi da ideiak render bidez azaltzea, gakoa erakargarritasunean baitago. Baina niri benetan erakargarri egiten zaidana oinak lurrean, biztanleen beharrak buruan eta eskuak elkarlanean, proiektuak adostu, fikziotik atera eta benetan gauzatzeko gai izango den herri ordezkari-tza lortzea da.

*inaki zubillaga*

Coliseo antzokian ez da erantzun ona izan musika programazioan; Portaleko domeketako proposamenak, ordea, beti topera. Non egon daiteke giltza?

Zuzenean

Urduri ari naiz azken bolada honetan. Hemengo kolaborazioa egin beharretik aparte... udaberriarekin jaialdi bereziak hasten direlako. Viñarock-ekin hasi zen denboraldia Albaceten, eta orain Ermuko Vertigo Rock dugu asteburu honetan; eta, behin ekainean sartuta, KnotFest eta Hellfest Nantesen.

Horrelako jaialdi-bezperetan zeozer berezia antzematen duzu gorputzean, txindurriak bazenitu bezala... ezin gelditu.

Gainera, egon naizen azken kontzertuetan ez gara elkartu lagun asko (35, 15, ... Saint Vitus-eko kontzertuan ehun ere ez ginen batu...). Rosendo eta Berri Txarrak, biak BEC aretoan, izan dira negu honetan jende gehien bildu dituztenak.

Eibarren ere Coliseo antzokian ez da oso erantzun ona izan musika programazioan, Tubular Tribute-ren kasuan izan ezik. Azken ekitaldiak kalitate handikoak izanda ere, oso erantzun eskasa izan dute.

Portaleko domeketako proposamenetan, ordea, kontraste izu-

garria erakusten du: beti topera. Eguna, ordua, musika mota, promozioa, prezioa, ... auskalo zein izan daitekeen giltza Coliseokoaren joera aldatzeko.

Horrelakoa da musika zuzeneko beste aldea: neguan basamortu bezala eta udaberriko festibaletan jende mordoa, hala da!!

Bueno ba... esatera nindoana: Kriston kartela antolatuta dute Ermuko lagunek Vertigo Rock jaialdirako. Herriko gazte talde bati esker 13. edizioa egingo dute zapatuan.

Aurtengo kartelean hardcore, punk, ... hainbat motako taldeak daude. Betiondoko zelaigunean, arratsaldeko 16:00etatik aurrera 10 aukera egongo dira taula gainean: Lehiotikan eta Gatillazo dira hortik talde interesgarriaenak niretzat.

Honako kolaborazioa amaitzera nindoala berri bat jaso dut: domekan Untzagan, Eibar Foball Taldeak goi mailan bere bosgarren denboraldia arrakastatsu amaitu duela-eta, hori ospatuko dutela. Gatibu eta SuTaGar-ekin... Gogorra benetan!!! Ba, gozatu!!!

Hurrengo astebururako, maiatzaren 26rako, daude deituta Udal eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak gurean, Europako Parlamenturakoekin batera. Oraingoan herritarrengandik gertuen dagoen erakundearen zeintzuk egongo diren aukeratzea ere egokitzen zaigu, hau da, datozen lau urteotan gure udaleko alkatea eta zinegotziak zeintzuk izango diren eibartarren bozkek erabakiko dute. Bost alderdik dihardute udaleko jarlekuak betetzeko lehian eta guk egindako hiru galderei emandako erantzunak batu ditugu ale honetan.



**MIGUEL
DE LOS TOYOS**



Alkategaiei GALDEZKA

Azken legegintzaldiaren onena herriari eta herritarrei mesede egin dien edozein ekimen izan daiteke. Okerrena, oposizioa hainbat ekimen etenbarik blokeatzen ibili dela.

- ZER IZAN DA AZKEN LEGEGINTZALDIAREN ONENA ETA TXARRENA?

Oso zaila da lau urte ekintza bakarrean laburbiltzea. Eibar Ospitalea eta Amañako Berdintasunaren Pasealekua ipini dira martxan. Bat hautatzekotan, herriari eta herritarrei mesede egin dien edozein ekimen, baita txikiena ere aukeratuko nuke. Okerrena, hauteskudeei begira egindako kalkuluen eraginez, oposizioak herriarentzat onuragarriak diren ekimenak etenbarik blokeatzen ibiltzea izan da. Herriak adostasuna behar du, ez dauka blokeoen premiarik.

- ZEINTZUK DIRA ZUEN PROGRAMAKO 5 PUNTU NAGUSIAK?

Aisialdirako gune berriak: 45.000 m², Mekolako, Toribio Etxebarriako, Guardia Zibilaren koartel barruko parkeekin, Estaziño-Azitain trenbidearen gaineko pasealekuarekin, Eibar-Ermua ibai-parkearekin edota Azitain-Maltzaga bidegorriarekin. Eibar, topagunerako hiria: Aisialdirako zentruen sarea auzoetan (Torrekuako anbulatorioan, Amañako zinean, Bittor Sarasketako epaitegian, Ipuruako merkatuan eta Txontan). Errebalen ere herritarrak elkartzeko eta bat egiteko 2.700 m² egongo dira eta Barrera, Jazinto Olabe, Urki eta Amañako haur parkeak estaliko ditugu. Lanerako hiria: Formakuntzarako programak, eskaintza eskarira moldatzen duten enpresentzat. Lehiagune Industria Foroaren laguntza osoa. Eibarko Parke Teknologikoaren eta Ai-

zitainen, Matsarian... lurzoru berriak sortzearen aldeko konpromiso sendoa. Eibar, hiri irisgarria: Herri osoan zehar 1.000 aparkaleku berritik gora. Gaur egun dagoen autobus geltokia modernizatzea, Torreku-Berdintasunaren Pasealekua, Ubitxa-San Kristobal, Jardiñeta 29-31-33-35, Mekola-Arrate Bide, Egiguren-Sostoa, Iparragirre-Sautsi igogailu berriak; eta gazteak eta nagusiak, herriarentzat beharrezkoak diren belaunaldien arteko ekintza modura. Formakuntza, enplegua, alokairuzko apartamentuak, gazteentzat bereziki prestatutako aisialdi eskaintza. Nagusientzat zinegotzigoa sortzea, euren eskubideei erantzun zehatzak emateko.

- ZEIN ASMO DUZUE EIBARREN EUSKERAREN EGOERA HOBETZEKO?

Euskeraren erabilera eta transmisioa sustatzen eta euskera ikasteko kanpainak bultzatzen jarraituko dugu, euskera ikasteko taldeak indartzeko ahalegin berezia eginez. Ildo horretan, Eibarrera bizitzera datozen haur eta familiei euskera ikastea errazteko programa bereziak garatuko ditugu. Euskerazko kultur eskaintza indartu eta horri lotutako ikuskizunetara joaten direnen kopuruak gora egiteko politikak ipiniko ditugu martxan eta Coliseoaren Laguna txartelarekin aplikatzen diren deskontuak handiagoak izango dira euskerazko ikuskizunetan gaztelarazkoetan baino.



20 urte baino gehiago zurekin.

Profesional talde handi bat
zure irribarrea zaintzen.

 **bista eder**
clinica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19
www.bistaeder.es



**GORKA
ERRASTI**



- ZER IZAN DA AZKEN LEGEGINTZALDIAREN ONENA ETA TXARRENA?

Onena, Eibar eta eibartarrentzat aurrera ateratzea lortu ditugun 80 ekimen eta proiektu aberasgarriak dira. Oposiziotik ere gauza interesgarriak lortu daitezkeela frogatu dugu. Pentza gobernua lortuko bagenu! Langileen mugimenduen ondoan ere egon gara eta asko eskertu digute. Txarrena, PSOE-ren inizatiba falta izan da. Noraezean ibili dira, gehiengo ez dutela irentsi ezinda. Besteen aportazioekin joan dira Udaleko kudeaketa aberasten. Kultur politika sendo bat ere faltan bota dugu. PSOEren eredia, 32 urte gobernuan eta gero, agortuta dago.

- ZEINTZUK DIRA ZUEN PROGRAMAKO 5 PUNTU NAGUSIAK?

Eibar eta eibartarrek azken urteotan galdutako aberastasuna eta erreferentzia berreskuratzea nahi dugu. PSOEek hiltzen utzi dituen auzoak biziberrituko ditugu. Kultur politika sendo baten beharrean gaude ere eta horretarako baliabideak jarriko ditugu. Kultur sorkuntzarako espazioa edo Errebal berriko espazio kulturala, Eibarko kultur eragileek kudeatzea, adibidez. Gainera, hiri jasangarri eta bizigarri baten alde lan egingo dugu eta alokairu publiko eta soziala bilatuko duen Herritarrentzako Etxebizitza Zerbitzua sortuko dugu.

- ZEIN ASMO DUZUE EIBARREN EUSKERAREN EGOERA HOBETZEKO?

Euskeraren plan estrategikoa idaztea bultzatu zuen EH Bilduk eta hori AKEBAL ekimenean gauzatu zen. Ekimena aurrekontuz hornitzeko konpromiso sendoa dugu. Eskola Aholku Taldea sortuko dugu. Hezkuntza, Aniztasun eta Euskera teknikariez osatuta, aurrekontu propioarekin eta Eskola Komunitatearen bidelagun izateko. Euskaltegietakoa matrikulazioa handitzeko, euskeraren doakotasunera joan behar gara. Azken urteotan hobari batzuk gehitu ditugu, baina ez da nahikoa.

Azken legegintzaldiaren onena, Eibar eta eibartarrentzat aurrera etaraztea lortu ditugun 80 ekimen eta proiektu aberasgarriak dira. Txarrena, PSOEren inizatiba falta izan da.



**JOSU
MENDIKUTE**



- ZER IZAN DA AZKEN LEGEGINTZALDIAREN ONENA ETA TXARRENA?

Onena: demostratu dugu ezinezkotzat jotzen zirenak egin ahal zirela: NAN bulegoa, edo ekonomia piztera 1,2 miloi bideratzea. Txarrena: udal agendan proiektu estrategikorik ez da egon.

- ZEINTZUK DIRA ZUEN PROGRAMAKO 5 PUNTU NAGUSIAK?

Bi zutabe nagusi dauzkagu: lan gehiago eta hobea sortzea, eta bizi-kalitatea hobetzea. Guretzat txanpon beraren bi aldeak dira: lan egiteko eta bizitzeko leku hobea nahi dugulako. Bost puntutan aipatzeko, industriaren aldeko politika (lurzorua sortu, industrialdeak hobetu, hutsik dauden pabilioiak berreskuratzen lagundu...); egoera zailean daudenei aurrera egiten lagundu; aparkalekuarekin dagoen arazoa konpondu (2.500 aparkalekutik gora proposatu ditugu) kaleak pertsonendako berreskuratze (kale peatonalak, parkeak, berdeguneak), eta garbi mantendu; herri bizitasuna areagotu (jarduera fisikoa, kultura, aisialdi osasuntsua); eta hori guztia herritarren esku lagatzeko gobernantza eredu berri bati ekin, benetako gardentasuna eta parte-hartzea bultzatuta.

- ZEIN ASMO DUZUE EIBARREN EUSKERAREN EGOERA HOBETZEKO?

Herri hau euskeratik eta euskeraz eraiki nahi dugu. Horregatik, gure esku badago, udal gobernuko zinegotzi guztiak euskaldunak izango dira, herritarrek aukera izan behar dute herri ordezkariekin bere hizkuntzan berba egiteko. Administrazioa euskalduntzeko neurriak ere areagotuko ditugu. Horik aurrera, bereziki lagunduko dugu euskerazko jarduna, hizkuntz-paisaian erakundeek ahalmen handia dutelako. Ahalegin berezia egin nahiko nuke Eibarko euskera esparru gehiagotara zabaltzeko, eta horretan dihardutenek laguntza eta maitasun gehiago merezi dute Udalaren aldetik.

Azken legegintzaldiaren onena, demostratu dugula ezinezkotzat jotzen zirenak egin ahal direla. Txarrena, udal agendan proiektu estrategikorik ez dela egon.

 <p>APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA emansl@emansl.es</p> <p>EMAN CONSULTING, S.L.</p> <ul style="list-style-type: none"> • AHOLKULARITZA ETA CONSULTING: - Laborala - Fiskala - Kontablea - Juridikoa • GIZA ERREKURTSOAK: - Enpresako komenio eta hitzarmenak • PERTSONALAREN AUKERAKETA <p>J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 EIBAR Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 ERMUA</p>	 <p>MAILAK TRUST. S.L. TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK KOMUNITATEEN GESTIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA • ALOKAIRUAK • BALORAZIOAK • SUBENTZIOAK • BANKU KREDITUAK • TRASPASOAK • PERITAJEAK • KREDITU OFIZIALAK <p>J. Etxeberria, 5 (EIBAR) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342 Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) 943 170 451 Fax: 943 176 901</p>
---	--



**ISABEL
FDEZ. PEJENAUTE**



- ZER IZAN DA AZKEN LEGEGINTZALDIAREN ONENA ETA TXARRENA?

Herritarren eskutik sortu diren ekimenak lirateke onena. Errebal Plataforma, Ipuruako Merkatu Plaza sustatu duten bi emakume ausartak, Txontako plataforma edo astelehenero duintasuna zer den erakusten diguten pentsiodunak, adibidez. Instituzioetatik kanpora ere politika egin daitekeela agerian laga duten pertsonak, alegia. Txarrena, berriz, Udal honi ez zaiola gustatzen jendeak politika egitea eta hori oztopatzen duela. Herritarren parte-hartzerako benetako bideak zabaltzeko konpromisoa geure gain hartzen dugu.

- ZEINTZUK DIRA ZUEN PROGRAMAKO 5 PUNTU NAGUSIAK?

Oso argiak diren bost ardatzen alde egiten dugu: enplegua, herritarren parte-hartzea, gizarte zerbitzuak, feminismoa-kultura eta euskera-kirola. Bi neurri zehatzen inguruko adibideak azalduko ditut. Lehenik eta behin, kalitatezko enplegu jasangarrirako bi plan, 5 milioi eurokoak: gazteei zuzendutako Gaztelana eta luzaroan langabezian daudenak berriz lanean hastera bideratuta dagoen Itzultzea. Eta, horrekin batera, herri-konsultak indartzea eta, programa bete ezean, kargu publikoak atzera botatzeko prozedura lantzea.

- ZEIN ASMO DUZUE EIBARREN EUSKERAREN EGOERA HOBETZEKO?

Euskera oinarrizko eskubidea da pertsona guztientzat eta Euskadiko materiari gabeko ondarea. Arlo pribatuan zein publikoan erabiltzearen aldeko apustua egiten dugu. Ikasteko erraztasunak ematea proposatzen dugu: doaneko irakaskuntzara gerturatzen joatea, kontziliazioa eta ordutegien malgutasunerako politikekin, arlo horretan lanean diharduten elkarteekin batera Euskeraren Udal Batzordea sortzea, udal bulegoetan harrera euskeraz izateko eskubidea betetzen dela eta, horrekin batera, Udalak antolatu edo diruz-lagundutako ekitaldi guztietan euskera erabiltzen dela bermatzea.

Azken legegintzaldiaren onena, herritarren eskutik sortu diren ekimenak lirateke. Txarrena, Udal honi ez zaiola gustatzen jendeak politika egitea eta hori oztopatzen duela.



**JAVIER
NUÑEZ**



- ZER IZAN DA AZKEN LEGEGINTZALDIAREN ONENA ETA TXARRENA?

Legegintzaldiko txarrena, PPK Udalean zuen ordezkartza galdu zuela eta, beraz, lau urte hauetan Udalean ahotsa izan duten bakarrak ezkerrekoak, abertzaleak eta independentistak izan direla litzateke. Eta onena, gure herriko "gaitz" guztien arduradunak gu ez ginela eta beste batzuk arazo horientzat konponbidea ez direla izan agerian geratu dela. Lau urte eta gero zerbait argi badago, hori #EibarrenOraindikEgiteke-AskoDagoela da eta, horrekin batera, PP berriz Udalera bueltatu behar dela, esateko eta emateko asko du-eta.

- ZEINTZUK DIRA ZUEN PROGRAMAKO 5 PUNTU NAGUSIAK?

Gure ardatz nagusiak lau dira: enplegua eta Eibar berrindustrializatzea, industria barik lanik ez dagoelako; eibartarren ekonomia hobetzea, zergen jaitziera eta prezio publikoak defendatuz. Hutsik dauden partikularren etxebizitzetara errekargua bertan behera lagatzea proposatuko dut; Eibar hobetzeko beharrezkoak diren azpiegiturak, agindu eta bete ez direnak amaituta, horien premia handia dago eta; baita eibartarrei eskaini beharreko zerbitzuak hobetzea ere. Nire programa www.fjaviernunez.ez helbidean osorik irakur daiteke.

- ZEIN ASMO DUZUE EIBARREN EUSKERAREN EGOERA HOBETZEKO?

Euskerarekin zerbait daukagula edo bere kontra gaudela esaten dutenek diotenaren kontra, hori gezurra dela esan nahi dut. Soraluzen eta Elgoibarren zinegotzi modura aritu naizen 16 urteetan, inork ezin dezake esan ez dudala euskeraren alde egin. Urteak daramazkit euskaltegietan ikasten. Beti defendatu eta babestu dut eta horrela jarraituko dut, Ordenantza beteta eta euskeraren aldeko eragile eta ekimenen zerbitzura egonda. Euskeraz bizitzea errealitatea izateko lan egingo dut, euskera guztiona delako eta, gainera, Eibarko elkarbizitza anitza eta plurala izateko tresna ere badelako.

Azken legegintzaldiaren txarrena, PPK Udalean zuen ordezkartza galdu zuela eta Udalean ahotsa bakarrik alde batekoak izan dutela. Onena, ikusi dela gu ez ginela arazoa.

- DESIGNUA ETA SORMENA
- WEB GUNEAK
- RESPONSIVE WEB DESIGN
- IRUDI KORPORATIBOA
- PAPERGINTZA ETA KATALOGOAK
- ERROTULAZIOA
- SEINALEZTAPENA
- BIDEOAK
- ARGAZKIAK
- KARTELAK

*Komunikazio grafikoa,
zure neurritara*

*Comunicación Gráfica
Personalizada*

Desde 1990-etik

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR
Tel. 943 82 13 00
www.estilografico.com

Hamaikagarren Udal Hauteskundeak izango dira diktadura amaitu zenetik. 40 urte bete dira aurten (diktadurak iraun zuen denbora bera) 1979 hartatik eta, tartean, hamar aldiz izan dugu aukera herriko alkatea zein izango zen erabakitzeko. Oraingoan lau urtero ematen den aukera berri baten aurrean gaude eta bost izango dira aginte-makila hartzeko prest aurkeztuko diren hautagaiak.

Bost alkate Franco joan zenetik DE LOS TOYOS ARRIOLAREN BIDETIK

UDAL HAUTESKUNDEETAKO AURREKO EMAITZAK

1979: EAJ (8), PSE (6), HB (4), EPK (2), EE (1)
 1983: EAJ (9), PSE (8), HB (3), EE (1)
 1987: PSE (7), EA (4), HB (4), EAJ (3), EE (2), AP (1)
 1991: PSE (8), EAJ (5), HB (4), EA (3), PP (1)
 1995: PSE (7), EAJ (5), HB (3), PP (3), EA (2), EB (1)
 1999: PSE (9), EAJ-EA (6), EH (4), PP (2)
 2003: PSE (11), EAJ-EA (7), PP (2), EB (1)
 2007: PSE (11), EAJ (5), EB-Aralar (2), EA (2), PP (1)
 2011: PSE (9), Bildu (6), EA (4), PP (2)
 2015: PSE (10), EH Bildu (5), EAJ (5), Irabazi (1)

Eibarko alkateak 1979tik

1979-1983: Mikel Larrañaga
 1983-1987: Jesus Mari Agirre
 1987-1993: Aurora Baskaran
 1993-2008: Iñaki Arriola
 2008-2019: Miguel de los Toyos

Aurtengo apirilaren 28ko botoei jarraituz, 21 zinegotziak honela banatuko ziren: PSE-EE (6), EAJ (6), Elkarrekin Podemos (4), EH Bildu (4) eta PP (1). Zenbatetan aldatuko dira kopuru horiek?



Orain dela lau urte 11 gizonzko eta 10 emakumezko osatu zuten Udala.

Aurreko urteetako emaitzei errebasoa eginez, nazionalistek eta sozialistek irabazi dituzte udal hauteskundeak gurean. Diktadura amaituta, hasierako bietan EAJ izan zen nagusi. Baina, alderdia banatu zenetik (EA sortuta), sozialistek hartu zuten agintea eta eurak izan dira nagusi hurrengo hauteskunde guztietan. Bost alkate izan dira tarte horretan eta Iñaki Arriola gehien iraun duena karguan (16 urte, hau da, lau legegintzaldi). Aurora Baskaranen bigarren legegintzaldiaren erdialdean hartu zuen makila eta bere azkenekoaren erdialdean laga zion Miguel de los Toyosi. Azken honek ere dagoeneko 12 urte egin ditu karguan eta jarraitzeko asmoarekin aurkezten da orain ere.



Tfnoa: 943 74 18 00
 Faxa: 943 74 17 60

P.M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80
 Faxa: 943 20 18 41
 e-maila: denolan@denolan.es
 Muzategi, 1 (EIBAR)



Muzategi, 1 (EIBAR)
 Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

Larragest



F. Calbeton
 22-24

INMOBILIARIA 690 610 715 ASEGURUAK 943 200 795

Eibar-Bartzelonaren ondoren, Gatibu eta Su Ta Gar izango dira etziko ospakizunetan

Mendilibarren taldeak lasai amaituko du bere bosgarren denboraldia 1. mailan, sailkapeneko erdialdean kokatuta eta jatsierako arriskua orain dela pare bat aste guztiz saihestuta. Ipuruan Ligako irabazlearen aurka jokatu beharreko partidu bakarraren faltan, eibartarrak 12. postuan daude eta, azken jardunaldiko emaitzaren arabera, 10. postutik 14.era amaitu dezakete. Azken aurreko bi denboralditan postu hobe eskuratu dute eta baita puntu gehiago ere: iaz 9. postuan amaitu zuen Eibarrek, 51 punturekin, eta aurreko denboraldian, 10.ean eta orain arte lortutako puntu kopuru handienarekin (54). Oraingoan gehienez 49ra helduko da, Bartzelo-

nari irabazten badio (egun 46 ditu). Mendilibarren lehen denboraldian eibartarrak 14. postuan amaitu zuten, 43 punturekin. Eta Gaizka Garitanorekin jokaturako bakarrean, estreinaldian, taldea 35 puntutan geratu zen, Deporrek eta Granadarekin berdinduta, baina maila galdu zuen average kaskarragoa zuelako.

Azken urteotan bezala, Eibarrek 1. mailan jarraituko duela ospatzeko jaialdia antolatuko dute. Ekitaldiak domekan izango dira, Ipuruan 16:15ean hasiko den partidua amaitu eta jarraian. Jaia zelaitik Untzagara pasatuko da: 18:30etik 19:30era Egoitz Txurruka mallabitarrak (DJ Txurru) jardungo du musika ipintzen. Taldeari omenaldia



19:30etik 20:00etara bitartean egitea aurreikusten da. Gatiburen kontzertua 20:00etatik 21:00etara iraungo du eta Su Ta Gar taldekoena 22:00etatik 23:30ak arte. Domeka izan arren, jaia luzatu nahi dutenentzat, DJ Txurruk jardungo du musika eskaintzen, 01:30ak arte.



Eibarko atletak bikain taldeka

Aurreko asteburuan Arrasaten jokaturako eskola mailako Gipuzkoako taldekako txapelketan Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak oso emaitza onak lortu zituzten. Horrela, mutilen taldeak (J.A. Mogel ordezkatzan) lehenengo postua lortu zuten taldeka eta 4x80 metroko erreleboa irabazi zuten; nesken taldeak bigarren amaitu zuten eta postu bera eskuratu zuten erreleboka.

Kadete mailako txirrindularitza proba jokatu da etzi goizean

Goizeko 10:30ean hasiko da Untzagan kadeteen probintzia mailako "Eibarko Txirrindularitza Elkartearen III. Trofeoa, Ikolan Lanaldi Saria, Casa Galicia As Burgas Sari Berezia" eta eguerdiko 12:00etan gutxi gorabehera amaituko da Urkizun, Zubi-Gain kafetegiaren aurrean. Parte-hartzaileek 63 kilometroko distantzia osatu beharko dute: Eskoriatzaraino joko dute hasieran eta, Aingeru Guardako errotondan buelta eman ondoren, Oñatiko Zubillaga auzorako bidea hartuko dute; gero, San Prudentzioko errotondatik, zuzenean etorriko dira Urkizuko helmugaren bila.



Eibar Igerixanekoez hainbat txapelketetan hartu dute parte

Gipuzkoako Igeriketa Federazioak antolatutako Sarien Zirkuitoaren barruan, Tolosan Zirkuito A barruan jokaturako San Juan Sarian Eibar Igerixaneko zazpi ordezkari izan ziren parte hartzen eta Zirkuito B barruan jokaturako Ordiziako Sarian beste hainbeste, kasu bietan infantil, junior eta absolutu mailetakoko proben aurre egiteko. Bestalde, Bergarako Agrosin igerilekuan jokaturako

alebinen zazpigarren jardunaldian 14 laguneko taldea aurkeztu zuten eibartarrak: Iker Calvo onena izan zen 400 estiloetan eta 200 librean, Iosu Talanek 100 estiloko irabazi zuen eta Maddi Maguregik 200 librekoa, hiru onenen artean lortutako beste postuekin batera. Azkenik, Azkoitian jokaturako benjaminen ligaren bosgarren jardunaldian Eibarko 11 igerilari izan ziren.



Ferreirok ezin izan zuen Euskadiko squash txapela jantzi laugarrenez jarraian

Gasteizen jokatutako finalean Iruñeko Oberena klubeko David Marinek Alberto Ferreiro eibartarrari irabazita, honek azken hiru urteetan irabazitako txapelen dinamika hautsi egin zuen. Hala ere, Eibar Klub Deportiboko ordezkariak oso maila onean jardun dute: Ferreiro azpitxapeldun izateaz gain, Sergio Salgado hirugarren izan delako Euskadiko txapelketa nagusi horretan. Finalerdietan aurrezurre jardun zuten Deporrek biek eta hor Ferreiro 3-0 nagusitu zitzaion Salgadori; irabazi bai, baina hor pilotutako nekeak finalean eragin zion eibartarrari. Iruñeko San Juan klubeko Mikel Elizalde izan zen laugarren. Miguel Cabanillas Deportiboko hirugarren ordezkariak 12. postuan amaitu zuen.



Ferreirok eta Salgadak finalerdiko partidua jokatu zuten elkarren aurka.

“Uda 2019 guztiontzat” egitaraua prestatu du Udal Kirol Patronatoak

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte iraungo du egitarau horrek eta parte hartzeko izena emateko epea maiatzaren 31n amaituko da. Egitarauak hiru aukera eskainiko ditu: haurrentzako igeriketa, gazteentzako multiekintza eta helduentzako UR-FIT. **Haurrentzako igeriketan** 3tik 12 urtera artekoek eman dezakete izena, bi edo lau asterako aukerekin. Orduetgia honakoa izango da: 11:00etan, 11:45ean eta 12:30ean goizez; eta 17:00etan, 17:45ean eta 18:30ean arratsaldean. Hilabete osorako prezioa 80/120 euro da eta bi astekoa 45/65. Horko zozketa ekainaren 3an egingo da. **Gazteentzako multiekintza** 12-16 urtekoentzat dago prestatuta eta, aurrekoa bezala, bi edo lau astetan izena emateko aukera. Bi egun egingo

dituzte uretan eta beste hirurak multiekintzan (Ipuruan, Orbean eta Unben), 11:30etik 13:00ak arte. Hilabete osoko prezioak haurrentzako igeriketaren berberak dira: 80/120 euro hilabete osorako eta 45/65 euro bi astekoa. Helduentzako UR-FIT 16 urtetik go-



rakoentzat antolatu dute, lau astekoa da eta igerilekuan egunero eskaintzen diren ikastaroetara etortzeko aukera eskainiko du (acuabike, acuafitnes, igeriketa, acuarning...). Hor izena ematen duenak edozein ordutegian joan daiteke eta hilabetearen prezioa 40'70/58'20 euro da.

Irribarria eta Elezkano 1. mailako buruzburuko finalerdia jokatuko dute Astelenan

Aspe enpresako bi aurrelariak handik hamabost egunera Bilbon jokatuko den finalerako txartelaren bila irtengo dute domekan gurean jokatuko den jaialdiaren partidua nagusian. Eibarko enpresak antolatutako kartela binaka jokatuko diren beste bi partiduk osatuko dute: lehenengoan Altunak eta Tolosak osatutako bikoteak Jakak eta Martijak osatutakoa izango dute aurrean, lehen mailako pilotariekin osatutako konbinazioan; jaialdia amaitzeko, Mendizabal III.a eta Oier Etxeberria Zabala-Ruiz bikoteari irabazten ahaleginduko dira. Irribarria eta Elezkanoaren artekoan irabazten duenak bezperan (bihar arratsaldean Bilbon) jokatuko den Ezkurdia eta Urrutikoetxearen arteko garailea izango du zain final handirako. Jaialdia 17:30ean hasiko da.



Avia Eibar Saskibaloiak azken aukera ere ez zuen baliatu

Sasoi batean Eibar FT 2. A mailara igo arte urteetako promozioz betetako ibilaldi luzea egin zuen. Gure herriko saskibaloi taldeak ere badirudi bide beretik jo duela eta, orain dela bi urte edo iaz gertatu zen moduan, orain ere probintziako 2. mailara igotzeko bidean geratu da. Aurten, gainera, aukera bat baino gehiago izan du, baina ezin izan du gauzatu. Azkena zapatuan izan zuen Ipuruan, baina kantxa faktorea ere ez zuen bere alde jarri eta denboraldiko partidu hasiera kaskarrenak porrotera eraman zuen taldea. Tolosako Take Coach-ekoek azkenean 60-68 nagusitu ziren, atsedenaldira 26-40ko emaitzarekin aldageletara joan eta gero. Tolosarrek eskuratu zuten, beraz, Bidebietarako partidurako txartela. Ipuruan jokatutako beste finalerdian Larramendik 64-53 irabazi zion Mondragon Unibertsitatea C taldeari. Dena dela, Avia



Hurrengo asteko zapatuan egingo dute saskibaloi-jai Untzagan.

Eibar Saskibaloiak antolatutako fasea bikain irten zen eta klubak badu asmoa hurrengo batean ere halakoak prestatzeko. Domeka goizean, bestalde, txikienek osatutako mini talde biek (neskenak eta mutilenak) jokatu zituzten partidua eta, denboraldia amaitzeko, maiatzaren 25ean (zapatua) saskibaloi-jai egingo dute Untzagan Avia Eibar Saskibaloioek, 10:00etatik 15:00ak arte.

Aitor Montero pilotoak lider jarraitzen du Espainiako Kopan

Eibarko pilotoak podiumera igo zuen abiadurako autonomien arteko txapelketaren bigarren proban eta horri esker lider jarraitzen du sailkapen horretan. Monterok hirugarren amaitu zuen SBK 1000 eta SBK 1000 Master mailako Cartagenako proban, berarentzat eta I+DENT bere taldearentzat berria zen zirkuitoan: *“Lasterketan hainbat istripu izan dira, bi bandera gorri atera behar izan dituzte eta hiru irteera egitera behartu gaituzte, horrek eskatzen duen kontzentrazioarekin eta sortzen digun tentsioarekin”*. Hala ere, motorraren geometria aldatzeko hartutako erabakiak mesede egin zion Monterori.



Eibarko bost errugbilarirekin jokatu zuen Euskadik ezin izan zion mailari eutsi

Espainiako erkidegoen ligako lehen mailan jarraitzeko postu bakarra zegoen jokoan Zaragozan jokaturako partiduan eta Katalunia eta Euskadi izan ziren, nor baino nor, sari bakar hori lortzeko borrokan. Azkenean kataluniarrak nagusitu ziren 15-12 eta Nerea Garcia, Aleu Cid, Lucia Moya, Amaiur Mayo eta Jone Agirrezabal Avia Eibar taldeko jokalariekin osatutako Euskadiko selekzioak bigarren mailan jokatu beharko du datorren denboraldian. Indartsuago hasi ziren kataluniarrak eta euskaldunen entseguak beranduegi heldu ziren.

Udaberri-traila egingo dute hilaren 26an

Kalamua Korrikalari Taldeak antolatuta, datorren asteko domekan Udaberri-traila egingo dute Klub Deportiboan hasi eta amaituko den probarekin. Irteera goizeko 05:00etan izango da eta aukera izango da Deporren motxila lagatzeko. 18 kilometroko ibilbidea osatuko dute, *“gutxi gorabehera hiru ordu eta erditan egiteko moduan”* eta pilotutako goranzko desnibela 700 metrokoa izango da. Hori bai, *“egiteko erraza”* dela diote antolatzaileek. Interesatuak izena eman dezakete kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidean. Frontala eta zira eramatea gomendatzen dute.


Borroka estua Gipuzkoako hiru-txirlo bola joko txapelketaren goiko postuetan



Markinako San Joxepekin jokatzeko duen Mikel Urkiak irabazi zuen Azepeitian.

Eibar Energiako Mikel Mujika euskaldun onena Bidasoako Itzulian


Eibarko Klub Deportiboko txirrindularitza taldeko legazpiarrak sailkapen orokorreko 7. postuan amaitu zuen, Caja Ruraleko Carmelo Urbano liderrarengandik minutu eta erdira. Lasterketa bikaina egin zuen Mujikak Bidasoako Itzuliaren 47. edizioan eta lehenengo etapatik azkenera bilakaera interesgarria izan du, itzulia indar betez amaitzeraino. Bi sari jaso zituen Eibar Energiako txirrindulariak eta maillot zuria ere berarentzat izan zen. Manex Alkorta taldekidea 9. izan zen Iturmendin.



Bihar jokatuko dira foball-zaletuaren Kopako finalerdiak

Azkena Adahi liga txapeladunak La Jara R. Hiru izango du aurkari goizeko 09:00etan eta handik ordu eta erdira Ipur Sagardotegiak eta JMR Erreformak taldeek neurtuko dituzte indarrak. Final-laurdenetan JMR-k ezustea eman zuen Garajes Garcia ligako bigarrenari 6-2 irabaziz eta Azkena Adahi bera ere ez zen Chic baino askoz gehiago izan oraingoan. Ipur Sagardotegiak eta La Jarak garaipen argiak lortu zituzten Larragest Sporting eta Bar Txokoren aurrean.

Batez ere lidergoaren inguruan Asola Berriko Ganix Rodriguezek eta San Migueleko Angel Ibarluzeak daramatena: Azepeitiko Garmendipen jokaturako 7. jaurtialdiaren ondoren, orain elgoibartarra ipini da aurretik eta eibartarra txirlo bakarrera dago. Elgeta bolatokiko Iker Arizmendiarieta markinarra hirugarren da, liderrarengandik bost txirlora, eta ondorengoek bederatzira daude. Emakumezkoen mailan Carmen Cordero azepeitiarrak ihes egin du sailkapenean eta Sonia Gomez eibartarra hirugarren dago. Txikienen mailatan Asola Berriko bi ordezkari dira nagusi: Kepa Rodriguez alebinetan eta Josu Urkia benjaminetan. Bihar txapelketako zortzigarren jardunaldia jokatu da Lasturren.



PEDRO ARRIOLA. "Alfa Ikastolako inguruak".

Maiatzaren 27tik 30era Ikergazte egingo da Baionan, Euskal Herriko ikerlari gazteen kongresua. Zientzia, natura-zientzia, gizarte-zientzia, osasungintza, arkitektura... arlo ezberdinak landuko dituzte hitzaldi, tailer eta bestelako ekintzetan eta Jone Amuategi eibartarrak kukurruku ezitulari buruz egingo du berba laborategiko kide batekin. Bioteknologia ikasketak egin ditu Amuategik eta masterra egiten dihardu gaur egun.

JONE AMUATEGI **BIOTEKNOLOGIAN** **GRADUATUA:**

“BIOTEKNOLOGIA bokaziozko lana da eta egiten duguna BIZI DUGU”



- Nolako izango da zure parte-hartzea Ikergazten?

Ikergazten izena emateko artikulu dibulgatzaile bat aurkeztu behar duzu, eta laborategiko kideok gradu amaieran landu eta orain ikertzen dihardugun gaiari buruzko artikulua aurkeztu genuen, kukurruku ezitulari buruz alegia. Gure proposamena onartu eta gaia aurkezteko aukera eman digute, eta 10 minutu jardungo dugu 'Kukurruku-etzula, gaitz zaharrarentzako konponbide berrien bila' izenburuarekin. Kukurruku-etzula sortzen duen bakteriarekin eta berak sortzen duen toxina batekin egiten dugu lan, eta biologia molekularra eta azterketa fisikoak egiten ditugu. Gure jarduna modu dibulgatzailean kontatzea da helburua.

- Beraz, hartzaileak ez dira gaien adituak izango?

Arlo ezberdinetako jendea egongo da eta gehienek ez dute bioteknologiaren ezere jakingo, baina nik ere ez arkitekturaren inguruan. Hori da ekimenaren helburua, norberarentzat ezezagunak diren gaietara hurbiltzea.

- Bioteknologia gradua egin duzu eta masterrarekin zabilta orain. Zein bide hartu duzu?

Biologia molekularra eta biomedikuntzaren inguruko masterra da, baina ikerkuntzara bideratuta dago. Irakasgai aldetik nahiko laburra da, baina horrela denbora gehiago eskaintzen diogu laborategiko lanari.

- Bioteknologia nahiko arlo berria dela esan daiteke?

Ez, bioteknologia orain dela milaka urte sortu zen. Ardo edo ogia sortzeko prozesuak, adibidez, bioteknologia tradizionala bezala ezagutzen dira. Bioteknologia modernoa bai (ingeniaritza genetiko oinarri duena), nahiko berria da, hamarkada gutxi daramatzalako.

- Bokazio kontua izan da zure kasuan?

Zientzia gustatzen zitzaidan eta zerbait eman nahi nuen, baina ez nuen nire burua sendagile edo erizain ikusten. Beraz, ikerketaren bitartez gizaritari zerbait eman ahal niola pentsatu nuen eta, bestetik, gauzekiko kuriositatea daukat eta pozik egiten dut lan hau.

- Bioteknologiak nolako ekarpenak egin ahal dizkio gizaritari?

Elikagai-zientziak, itsas-zientziak, energia, osasuna... bioteknologiak adar asko ditu. Gizakiak dituen edozein erronkari aplikatu ahal zaio bioteknologia. Txertoak, antigorputzak eta terapia berriak, adibidez.

Ez dira bioteknologiaren eraginez bakarrik garatzen diren gauzak, baina bioteknologiak bere lana egiten du.

- Nolako egoera dago gaur egun zientziaren lan munduan?

Ez da erreza, baina zortea dugu egiten duguna asko gustatzen zaigulako. Baina ondo ordainduta ez dago, bokaziozko lana da eta egiten duguna bizi dugu, eta lortu nahi duguna erdietsi edo emaitza positiboak iristen direnean demaseko poza hartzen dugu. Beste herrialde batzuetan diru gehiago inbertitzen da eta ikerlarien baldintzak askoz hobekiago dira, baina tira.

- Dibulgazioaren bidea hartzea pentsatu duzu?

Beti kontuan izan dugu dibulgazioa eta 2017an eusBIOTEK elkarte sortu genuen EHUko bioteknologia ikasleok, dibulgaziorik garrantziena emateko asmoz. Ignazio Zuloaga institutuan bioteknologiari buruz berba egiten egon nintzen eta Zientzia Astearen ere hartu genuen parte. Kontua ez da norberak berea bakarrik egitea, egindakoa zabaltzea oso garrantzitsua da, bestela gizaritean kontzeptu okerrak zabaltzea ahal direlako gai batzuren inguruan. Gizaritea hurbiltzea da gure lana eta horregatik da garrantzitsua Ikergazte.



argazkiak eta bideoak: etakitto.eus





JOSEBA LOZANO
(idazlea)

“Gizakiaren alderik onenak eta ilunenak azaleratzen ditut”

‘Harixa emoten’ egitasmoko parte-hartzaileek ‘Larrutik ordaindua’ eleberria hartuko dute hizpide Joseba Lozano idazlearekin hilaren 21ean, martitzena, 19:00etan liburutegian. Lozanok Pariseko Komunaren sasoian gertatutako hilketa batzuren inguruan kokatu du nobela historikoa eta nobela beltza uztartzen dituen lan hau.

- Nobela beltza eta historikoa nahasi dituzu eleberrian. Zein da emaitza?

Hori irakurleek esan behar dute. Larrutik ordainduak iraultza bat kontaktzen du, baina iraultza horren erdian herritar batzuen gorpuak agertzen hasten dira Parisko kaleetan, eta ikerketa bat jartzen da abian hiltzailea harrapatzeko. ‘Larrutik ordaindua’ *thriller* bat da nobela historiko baten barruan. Intrigaz, misterioz eta abenturaz betetako liburu bat, zinematografiko samarra, erraz irakurtzen den horietakoa, erritmo bizikoa, erakargarria, irakurleak bere burua harrapatuta sentitzeko modukoa.

- Errealitateak fikzioa gainditzen duela esan ohi da. Kasu honetan horrela da?

Begira, nire lehen nobelan sekta bat agertzen zen, eta sekta horretako kideek beren buruaz beste egiten zuten beste dimentsio batera joateko. Ibon Egañak egurra eman zidan kritika batean. Honela zioen: “*Erdialdera arte sinesgarri egiten bada, bigarren erdian nekezago egiten da istorioa distantziarik gabe irakurtzea, argumentua estranbotiko xamarra bihurtzen baita*”. Hiru adibide estranbotiko jarriko ditut, baina kontuan izan ehunka direla horrelakoak. Herriaren tenplua izeneko sektako 900 lagunek (umeek barne) beren buruaz beste egin zuten Guyanan 1978an, zianuroa edan ondoren. 90. hamarkadan, Eguzki-Tenpluko 100 lagunek beren buruaz beste egin zuten Frantzia, Suitza eta Kanadan. Gehienak, erreta. Beste sekta

bat: Zeruko Atea. 1997an 39 lagun suizidatu ziren San Diegon, *Hale-Boop* kometaren bisita aprobetxatuz. Sekta horretako kideek uste zuten estralurtarrak zirela, eta hilez gero, euren arimak kometaren atzetik zetorren espazio-ontzi batera joango zirela. Gorpuak aurkitu zituztenean, gizonezko guztiak barrabilarik gabe zeuden, soineko purpuraz jantzita eta Nike zapatila berriak oinetan. Beraz, errealitatea ere estranbotiko samarra izaten da. Parisko Komunean ere errealitateak fikzioa gainditu zuen. Kontuan izan behar da matxinadak iraun zuen bi hilabeteetan 30.000 lagun inguru hil zirela, gehienak zibilak. ‘Larrutik ordaindua’ errealitate gordina kontaktzen du, agerian jarrita noraino heldu gaitzkeen gauzak muturrera eramaten direnean. Alde horretatik, gizakiaren alderik onenak eta baita ilunenak ere azaleratzen ditu.

- Nobela historikoa eta nobela beltza uztartzeak, liburua idazteko orduan, lana zaildu egin du?

Idazle askok uztartzen dituzte nobela historikoa eta nobela beltza: Philip Kerrek, Umberto Ekok, Arturo Perez-Revertek... Azken batean, beti izan dira hilketak, hiltzaileak eta hiltzaile horiek harrapatzeko ikerketak. Nolanahi ere, egia da nobela historikoa idazteak ahalegin berezia eskatzen duela, dokumentazio asko behar duelako. Ez bakarrik gertatutakoa historia errespetatuz kontatzeko, baizik eta deskribatzen diren hamaika kontu behar bezala azaltzeko.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.eus

Banatu dira Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako sariak

Eguazten goizean jaso zuten saria ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatzen duen 25. Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako irabazleek, Hezkuntza Esparruko antzokiak hartu zuen ekitaldian. Aurtengo edizioako irabazleak Oihenart Agirre Ferreira (LH 1-2, La Salle Isasi), Libe Teruelo Alonso (LH 3-4, San Andres), Nahia Jauregi (LH 5-6, J.A. Mogel), Aiora Goitandia Anitua (DBH 1-2, Eibar BHI) eta Maddi Sarasua (DBH 3-4, Eibar BHI) izan dira.



Sariak emateko ekitaldian magia ikuskizuna egin zuen Hodei Magoak eta, era guztietako trikimailuak tartean, ikasleek ederto pasatu zuten goiza. Beste urte batzuetan bezala, aurtengo lehiaketako ipuin irabazleak datorren astean ikastetxeetan banatuko den Txikitto aldizkarian argitaratuko dira.



“Argiaren hautsa” euskerazko antzezlanaren taularatuko dute gaur

Vaiven Producciones konpainiaren eskutik “Argiaren hautsa” antzezlanaren ikusteko aukera izango da gaur Coliseo antzokian, 20:30ean. Lanaren egilea Luis Elizetxea da eta zuzendaria, berriz, Mireia Gabilondo. Bi zahar (Manuel eta Milagros) dira funtzioaren protagonistak eta bizitza eta heriotzaren, duintasuna eta oroitzapenaren inguruan hausnartzen du lanak: azken aukerak, amodioa hirugarren adinean, bizitzeko eta hiltzeko gogoak, barkamena... Parte hartzen duten antzezleak Mikel Laskurain, Miren Gojenola, Ander Iruretagoiena eta Ane Salvador dira eta musika, berriz, Iñaki Salvadorrena da. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).




Baratze bertikalen inguruko tailerra

Illunabarrian programaren barruan, ...eta kitto!-k Baratze Bertikalak tailerra antolatatu du datorren asterako, martitzenerako. Alluitz Naturaren eskutik eskainiko den tailerra ...eta kitto!-ko lokaletan (Urkizu, 11 solairuetan) egingo da, 19:00etan hasita eta prezioa 3 eurokoa da. Izena emateko 943-200918 telefono zenbakira deitu daiteke.

“Kontari eta Kantari” euskerazko ipuin musikatua

Bixar, 11:00etatik aurrera, Kontari eta Kantari egitasmoaren barruan “Buruko hori nork egin zion jakin nahi zuen satortxo” izenburuko ipuin musikatua eskainiko dute El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan. Olga Sanchez musikoterapeutaren eta Ane Lopez ipuin kontalariaren eskutik egingo den saioa euskeraz izango da eta 2-6 urteko haurrentzat, gurasoekin batera parte hartzeko pentsatuta dago. Izen-ematea doan da eta Liburu Sailean (3. solairuan) egin daiteke (plaza mugatuak izango dira).



Olor, gaur gauean Belekon

Gaur 23:00etatik aurrera “Zerua urez” diskoaren aurkezpena hartuko du Beleko tabernak. “Olor” musika proiektua Jokin Azpiazu Carballoren proiektu pertsonalena da. 2017. urtean abiatu zen Chroma Bartzelonako taldeari Zarauzko Putzuzulon harrera egiteko asmoarekin eta, hortik abiatuta, gaur arte aurrera egin du. Gaur zuzenean aurkeztuko duena bere lehen diskoa da eta, musikariak berak dioenez, “kontzertu berezia izango da, Eibarren eta batez ere Belekon jotzea beti izan da berezia niretzat zein ingurukoentzat, gazte-gaztetatik taberna hori guretzat erreferentzia izan da eta”.

Txistularien kalejira domekan

Domekan kalejira egingo dute Usartza Txistulari Taldekoek, 11:00etan Untzagatik abiatuta. Herriko kaleak txistuaren doinuarekin alaitzeko prestatu duten egitarauari jarraituta, “Minue”, “Leiala”, “Gatza” eta beste hainbat pieza eskainiko dituzte.

JUSTINA JAUREGI URZELAI

(I. URTEURRENA: 2018-IV-21)



Urtebete da gure ondotik joan zarela, baina bizirik jarraitzen duzu gure pentsamendu eta bihotzetan. Eskerrik asko gure bizitzeari eskainitako guztiarengatik.

Zure alabak, semea eta bilobek

Maite zaitugu!!



XIV. Juan San Martin beka deialdia kaleratu da

Udalak, UEUrekin lankidetzan, XIV. Juan San Martin bekarako deialdia kaleratu du. Euskerazko ikerketa sustatzeaz gain, Juan San Martin eibartar ikerlaria omentzeko helburua duen beka 9.000 eurokoa da eta aurtego deialdian landuko den ikerketa esparrua Historia izango dela azaldu dute antolatzaileek. Bekara aurkeztu nahi dutenek irailaren 2tik irriaren 11ra arte (biak barne) aurkeztu be-

harko dituzte eskaera eta dokumentazioa, Pegoran edo internet bidez, www.eibar.eus udalaren webgunean.

Euskerazko ikerketan interesa dutenentzat beka eskaintzen duen aukera paregabea dela eta, Komunitate Zientifiko Euskalduna osatzen duten irakasle, ikertzaile edota bestelako profesionaleri parte hartzeko deia egin nahie diete arduradunek.



Historia izango da ikerketa esparrua 9.000 euroko beka.

UEUren Udako ikastaroetarako dirulaguntzak jasoko dituzte eibartarrek

Zabalduta da UEUren 47. Udako Ikastaroetan parte hartzeko izena emateko epea. Aurten 30 ikastaro eta 6 jardunaldi eskainiko ditu UEUK, horietatik 18 Eibarren. Markeskua jauregian du egoitza nagusia UEUK eta bertan egingo dira Eibarko saio guztiak. Izen ematea UEUren webgunean egin daiteke (ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte) eta, az-



ken urteotan egindakolari jarraituta, aurten ere Eibarko Udalak dirulaguntza emango die ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrei, matrikularen %50 hain zuzen ere. Pegoran egin daiteke dirulaguntzaren eskaera, irailaren 27ra arte, eta laguntza jaso ahal izateko gutxienez %85eko asistentzia betetzea eskatzen dute.



Ordutegi berria sartu da indarrean liburutegian

Azterketa garaian bete-betan sartu garela eta, Juan San Martin liburutegian ordutegi berria ipini zuen astelehenean. Jakinarazi dutenez, ekainaren 28ra arte liburutegia eguerdian ere zabalik egongo da, astelehenetik barixakura (ekainaren 24ean eta 25ean izan ezik). Diotenez, "ikasleei azterketak prestatzen laguntzeko jartzen da ordutegi berezi hau, 09:00etatik 20:30era bitartekoa hain zuzen ere". Asteburuetan ohiko ordutegiari jarraituko diote, 10:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 20:00etara zabaldua. Bestalde, uztailaren 1etik 11ra, liburutegia 09:00etatik 19:30era zabalduko dute astelehenetik barixakura. Aldaketa batez ere ikasleengan pentsatuta egin arren, liburutegiak zerbitzu integralak (bertako fondoak irakurketa, hemeroteca, mailegua, internet...) eskaintzen jarraituko duela argitu dute arduradunek.



Arantzazu eta Oñati ezagutzeko irteera egin zuten berbalagunek

Berbetan mintzapraktika egitasmoko kideek txangoa egin zuten zapatuan. Argazkian ikusten duzun 20 lagunek taldeak Arantzazun bisita gidatua egiten hasi zuen eguna eta, eurretako batzuk santutegia aurretik ezagutzen bazuten ere, arreta handiz jarraitu zituzten azalpen guztiak eta oso gustora ibili ziren. Ondoren, berbalagunak Oñatira joan ziren bazkaltzera eta arratsaldean herria ezagutzeko tarteak ere hartu zuten, etxera bueltatu aurretik.



Vertigo Rock musika jaialdia ERMUAN

XIII. edizioa biziko du bihar Vertigo Rock musika jaialdiak Orbea Kardinalaren plazan. Jaialdia arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta domeka goizaldeko 02:30ak aldera amaituko. Evaristoren Gatillazo izango da karteleko talde nagusia eta eurekin joko dute beste talde ezagun askok eta herriko zenbaitek telonero gisa: Kaos Urbano, Leihotikan Taldea, The Capaces, Brutus Daughters, Perlata, Worth It, TRES41, The Red Army eta Salda Dago, esaterako.. Herriko rock taldeen elkarteak antolatuta, kontzertuarekin batera rock musikarekin lotutako beste ekintza batzuk ere egiten dira: erakusketak, lehiaketak...



Antxoa Eguna bihar ONDARROAN

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jai, Alde Zaharrea eta tabernetan egingo den antxoa pintxo dastaketarekin. Kantaize abesbatza eta Ondarroako Metal Taldea kantu kantari jardungo dute. 14:00etan zilarrezko antxoa emango da eta pintxo lehiaketako sariak banatuko. 16:00etan estropadak izango dira badian, 20:00etan DJ saioa Musika Plazan eta 22:30ean kontzertua toki berean. Domeka eguerdian estropadak egingo dira.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Vicente Ruiz Magaña. 90 urte. 2019-V-11.
- Beatriz Uriarte Vitorica. 91 urte. 2019-V-14.
- Arrate Urzuriaga Bollar. 59 urte. 2019-V-14.
- Pura Fernandez Cano. 81 urte. 2019-V-14.
- M^a Josefa Segovia Reina. 89 urte. 2019-V-14.
- Elisabet Agirregomezkorta Garitaonandia. 85 urte. 2019-V-15.

jaiotakoak

- Naomi Velasquez Cogollo. 2019-V-3.
- Nere Oria Iñan. 2019-V-5.
- Pol Alberdi Minondo. 2019-V-5.

farmaziak

- Barixakua 17
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 18
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 19
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 20
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 21
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguena 23
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Barixakua 24
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI - 2019AN-
 Zulueta (San Agustin, 5)

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

8	4	7	1	5	6	2	9	3
9	6	3	2	8	4	7	5	1
5	2	1	3	7	9	6	8	4
1	8	6	9	4	3	5	7	2
7	3	9	5	2	1	8	4	6
2	5	4	8	6	7	1	3	9
6	7	2	4	9	5	3	1	8
3	9	5	6	1	8	4	2	7
4	1	8	7	3	2	9	6	5

		6	4	9		2		
							3	
5	2	8						
	6			1	8	3	4	
		9				7		
	3	2	9	5			8	
						8	2	1
	1							
		4		3	1	6		

Barixakua 17

MUSEOEN EGUNA

16:00/20:00. Sarrera doan. Eibarko Armagintzaren Museoan.

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:30. Jolasak Urkizun.

MUSIKA AUZOZ AUZO

18:30. DJ Arima Cool. Jazinto Olabeko parkean.

BILERA

19:00. Irekia, Sanjuanak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaian (eguraldi txarra eginez gero, Arrate Kultur Elkartearen, 1. pisuan).

ANTZERKIA

20:30. "Argiaren hautsa" (Vaiven Producciones). 8 euro (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokian.

KONTZERTUA

23:00. Olor musika proiektuaren emanaldia, "Zerua urez" diskoa aurkezteko. Beleko tabernan.

KONTZERTUA

23:30. Moonshine Wagon. Ez Dok tabernan.

Zapatua 18

IPUIN MUSIKATUA

11:00. Kontari eta Kantari: "Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo", euskeraz, Olga Sanchez musikoterapeutaren eta Ane Lopez ipuin kontalariaren eskutik. Doan (izen-ematea Liburu sailean). El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALIK

16:00. Urkizu, Amaña eta Arrateko Andra Mari herri ikastetxeetako patioak zabalduko dituzte, hurrek jolasteko.

MUSEOEN EGUNA

17:00. Bisita gidatua euskeraz (18:30ean gazteleraz).
17:30. Tailerra: Errealitate birtualerako betaurrekoak. Sarrera doan. Eibarko Armagintzaren Museoan.

KONTZERTUA

23:30. Beato Ez Dok Soul Room. Ez Dok tabernan.

Domeka 19

MUSEOEN EGUNA

10:00/13:00. Sarrera doan. Eibarko Armagintzaren Museoan.

TXIRRINDULARITZA

10:30. III. Eibarko Txirrindulari Elkarte Trofeoa. Irteera Untzagatik. Helmuga 12:04 aldera, Urkizun.

KALEJIRA

11:00. Usartza Txistulari Taldearena, herriko kaleetan, Untzagatik abiatuta.

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALIK

16:00. Urkizu, Amaña eta Arrateko Andra Mari herri ikastetxeetako patioak zabalduko dituzte, hurrek jolasteko.

EIBAR KE-REN JAIA

18:30. DJ Txurruren saioa.
19:30. Eibar foball taldeari omenaldia.
20:00. Gatibu taldearen kontzertua.
22:00. Su Ta Gar taldearen kontzertua.
23:30. DJ Txurruren saioa (01:30ak arte). Untzagan.



Astelehena 20

IKASTEN

10:30. Antzerkia. Luzatze ariketak. Portalean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Jubilatuta eta pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

BERTSO JAIALDIA

18:00. Eibarko ikastetxeetako ikasleen bertso emanaldia. 2 euro. Coliseoan.

Martitzena 21

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

BERTSO JAIALDIA

18:00. Eibarko ikastetxeetako ikasleen bertso emanaldia. 2 euro. Coliseoan.

TAILERRA

19:00. "Baratze bertikalak", Illunabarriaren programaren barruan, Alluitz Naturaren eskutik. 3 euro. ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

HARIXA EMOTEN

19:00. Joseba Lozanorekin tertulia, "Larrutik ordaindua" bere eleberraren inguruan, Antxon Narbaizak gidatuta. Portalean (Kulturako 3. Batzartokian).

Eguaztena 22

KONTZERTUA

19:00. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua. 3 euro. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

DANBORRADAKO ENTSEGUA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Nagusien entsegua. Bittor Sarasketako 7an (Beistegi eraikinean).


Eguena 23

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza entsegua.
19:30. Abesbatzaren entsegua San Andres elizako lokaletan.

ODOL-EMATEA

18:00. Odola emateko saioa, odol-emateentzat. Anbulatorioan.



Erakusketak

Maiatzaren 26ra arte:

- **JUAN MIGUEL ALBA MOLINA, ANDRES INDURAIN ETA LUIS CAMACHOREN ARGAZKIAK** (Portalea)
- **JOSE IGNACIO DE CASTROREN ARGAZKIAK** (Topaleku)

Maiatzaren 31ra arte:

- **KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN ARGAZKIAK** (El Ambigú eta Portalea taberna)
- **ARGAZIOLA SARIA 2018KO ARGAZKIAK** (Deportibo taberna)
- **EMILIA VALENCIAREN ARGAZKIAK** (El Corte Inglés)
- **NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIA** (Untzagako Jubilatuta Etxea)


Ekainaren 2ra arte:

- **"EIBARKO INDUSTRIA-SAREAREN BERRERAIKUNTZA 1938-1942"** (Eibarko Armagintza Museoa)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, LUKAS Unanue Thobie, domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANNE Lasuen, etzi 2 urtetxo egingo dozuz-eta!!!! Ze bizkor pasatu dan. Aitaxo, amatxo eta Markelen partez.



3, 2, 1... 0 Azkenik zure eguna heldu da. Zorionak, SUGAR!!! Etzi primeran pasatuko dogu. Patxo zaparradia famelixaren partez.



Zorionak, EDER!, atzo 2 urte bete zenduaz-eta. Asko maite zaittugu! Musu haundi bat Ireni, ama eta aittaren partez.



Zorionak, MIKEL, gaur 2 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ELENE, gure etxeko printzesak atzo 7 urte bete zittuan-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, MAIALEN, astelehenian 10 urte bete zenduaz-eta, polittori. Laztan pillua famelixakuen partez.



Zorionak, AIORA, hillairen 21ian 13 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JULEN(hillairen 11an 3 urte) eta aitxitxa ALBER (25an). Patxo haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, NAIKE, hillairen 2xan gure artera etorri zifian-eta. Pozik hartu zaittugu famelixan! Musu haundi bat danon, eta batez be, LUR-en partez.



Zorionak, NILLE!, hillairen 15ian lehen urtia bete zenduan-eta! Famelixa guztiaren eta, batez be, zure anaixa LUKAren partez.



UXUE eta IGOR, zorionak!!! Zapatuan urtiak beteko dozuez-eta! Bejondeizuela!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

18an: 19:45, 22:30

19an: 20:00

20an: 20:00

"Keepers. El misterio del faro"

Zuzendaria: Kristoffer Nynholm



(2 ARETOAN)

18an: 17:00, 19:45, 22:30

19an: 17:00, 20:00

20an: 20:00

"Los hermanos Sixters"

Zuzendaria: Jacques Audiard



(ANTZOKIAN)


18an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30

19an: 17:00⁽¹⁾, 20:00

20an: 20:00

"Hellboy"

Zuzendaria: Neil Marshall



(ANTZOKIAN)

18an: 17:00

19an: 17:00

"Los Fixies. Amigos secretos"

Zuzendaria: Andrey Kolpin



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren irailetik aurrera. Lau lagunentzako. Tel. 634-419894.
- Pisua alokagai Eibarko Bidebarrieta kalean. 3 logela eta 2 komun. 110m². Altzari guztiekin. 800 euro, garajea aukeran (120 euro). Tel. 607-534881.
- Logela edo apartamentua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 665-019842.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-502177.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-532426.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-862059.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776998.
- Emakumezkoa eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko. Tel. 602-800266.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-481494.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-504202.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 612-482203.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 632-835745.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-483249.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 698-438215.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-077157.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 635-189294.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eskarmentu handia eta erreferentziak. Tel. 671-316837.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 688-842791.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 632-552394.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-587617.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-747039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziertagiria eta 5 urteko esperientzia. Tel. 603-514085.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 616-809926.

- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Ordu-tegi malgua. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-247272.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 642-498359.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 678-110861.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 603-715164.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 665-257468.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi malgua. Erreferentziak. Tel. 602-380040.
- Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko (sukaldari, kamarera, laguntzaile). Urte askotako esperientzia. Baita etxeko garbiketarako egiteko ere. Tel. 695-243883. Milagros.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-689227.
- Mutila eskaintzen da mendian lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. Tel. 632-725140.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Ziertagiria eta esperientzia. Tel. 626-407923.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 698-733356.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 604-293167.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-339525.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-235225.
- Emakumezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 665-257468.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 603-715164.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-464072.
- Emakumezkoa eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-090793.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-480376.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Ziertagiriarekin. Orduka. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 602-115184. Carolina.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 677-895202. Ana Iris.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 602-360043.
- Mutila eskaintzen da gidari jarduteko, baserri-lanak egiteko eta pintore moduan. Tel. 612-220276.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eguneroko bi ordu. Tel. 617-571210.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaroa egindako ziertagiria. Ordu-tegi malgua. Tel. 605-402030.

- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 643-961051.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Erreferentziak. Tel. 689-571882 eta 666-197831.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 643-923543.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-571335.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 602-303155.

4.2. Langile bila

- Ileapaintzailea behar da Elgoibarko ileapaindegi batean. Egun erdirako. Tel. 943-246225. Nerea.
- ...eta kitto-k banatzaileak behar ditu, normalean barixakuetan egiten den astekariren banaketarako. Tel. 943-206776 eta 943-200918. banaketa.etakitto@gmail.com
- Pertsona euskalduna behar da arratsaldean garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 610-916377 eta 685-758622.
- Estetizista behar da, manikura eta pedikuran esperientziarekin. Whatsapp 603-344258.
- Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Bidali kurrikuluma: olamarsan@gmail.com
- Kamarera/o behar da taberna batean. Tel. 695-690784.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

- Ekainetik aurrera oinarriko katalana irakasteko prest dagoen norbaiten bila nabil. Tel. 637-124479.

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da uztailan LH eta DBH ikasleei errefortzu klaseak emateko. Tel. 688-608922.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.2. Eman

- 9 asteko txakurkumea oparitzen da, bere osagarri guztiekin. Lehenengo txertoa jaso-ta. Tel. 626-249512.

6.4. Bestelakoak

- Autoa konpartitzerik? Goizero Eibar-Errerteria 06:45ean. 14:30 inguruan buelta. Tel. 680-626296.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

i30 N eta N-Line Gama Berriak

Dibertsioa garreneraino



i30 Fastback N

i30 N-line

MOVE Smart programa

170

€-tik aurrera /hileko

170€-ko 35 kuota
Sarrera: 7.335,8€
Azkeneko kuota:
9.392,42€
U.T.B. %8,08

- 5 urteko bermea km-mugarik gabe
- 5 urteko laguntza errepidean
- 5 urteko mantenimendua
- 5 urteko mapa-eguneraketa
- Itzultzeko konpromisoa
- MyHyundai

Azeleragailua sakatzea eta burmuineraino igotzen zaizkizun kilimak sentitzea. Bihurgune bakoitzean bihotzak agintzen dizun moduan sartzea. Motorrak abiarazterakoan egiten duen soinuarekin emozionatzea. Gidatzerakoan sentitu baina adierazi ezin duzun horri "N Espiritua" deitzen zaio. Bertan dago **Hyundai i30 N Gama Berriaren** kiroltasunaren esentzia. Horrekin, dibertsioa, enegarren potentziara iritsiko da. Izan ere, i30 N Gama guztia ahalik eta errendimendu eta kiroltasun handiena lortzeko diseinatu da, bolantearen aurrean pasioa eta dibertsioa berriz ere senti ditzazun. Baina "N Espiritua" askoz harago doa. Ezagutu ezazu **N-Line** akabera zure i30 gidatuz. Errepideaz goza ezazu berriro, eta eraman dibertsioa **Ngarreneraino Hyundaiaren i30 N eta N-Line Gama Berriarekin**.

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZOARAKO
WWW.OARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

HYUNDAI

5 URTEKO BERMEA MUGARIK GABE

i30 N-LINE eta N Performance Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 142-188. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,3-12,2. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO₂ emisioak (gr/km): 126-178 NEDC korrelatu zikloaren arabera lortuak.

Hyundai MOVE Smart finantzazio-eredua i30 SP 1.0 TGI 88,3kW (120CV) N-Line Hyundaiarentzat: Prezioa 20.475,00€. Sarrera 7.335,80€. Eskututako zenbatekoa 13.139,20€. Formalizazio-komisioa (%3): 394,18€ eskura. 36 epetara. 170 €-ko 35 kuota eta azkeneko kuota 9.392,42€. TIN %6,50, U.T.B. %8,08. Zenbateko Zorduna Guztira 15.736,60€. Epeka Prezioa guztira 23.072,40€. Finantzazioa Cetelem S.A.U bankoarek aztertuta eta onartu behar du. PSP gomendatua Penintsulan eta Balearretan. BEZ, garrasoa, matrikulario-zerga, jasangarri-ekontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Adierazte Plana aplikatu dateke erabiliko auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bazterrean titulatasunpean. Eskaintza 2019/05/31ra arte da baliozkoa. Irusien diren modeloak: Hyundai i30 N-Line, i30 Fastback N Performance, Mantenimendua ibilgailuaren finantzaziorik lotu. Hyundai Motor España S.L.U.k bere bezeroei eskaintzen dien km-mugarik gabeko 5 urteko bermea Hyundai Kontzesionarioen Sare Ofizialean erositako autoetan soilik aplikatuko da, zerbitzu-pasaportearen arabera. Kontsulta itzazu Hyundai MOVE Programaren baldintzak Hyundai kontzesionario-sarean edo www.hyundai.es/hyundaiMOVE webgunean.

• Eibarren egindako markak

• Moda

• Etxeko osagarriak

• Yoga:
"Yoga + Jarrera-Adimena"
"Jarrera berregokitzea"

- Urtebetetzeak
- Formakuntzak
- Dastatzeak
- Hitzaldiak
- Ekitaldi korporatiboak

Eta askoz gehiago!

hello@helmethouse.es
943 849 310

BLAS ETXEBERRIA 1,
COLISEO ONDOAN!

helmet house

CONCEPT STORE

f @helmethousestore



NOS MUEVE
EIBAR
BAT EGINIK



EUROPAN ERE 

MITINA

BIHAR MAIATZAK 18 // 18:30

EIBAR

UNZAGA PLAZAN

EAJ-PNV.EUS



EAJ
PNV



EMAN BOTOA VOTA